

DATORRENA

Negoziazioa beti indarrean dagoen balioa da **IÑAKI SOTO** > 3

PROFILA: Barbara Ehrenreich, pentsalari eta ekintzailea, langile eta emakumeen aldeko pitbull-a > 4

2022ko urriaren 1a | XVI. urtea • 793. zenbakia
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



650 USURBIL BIZI; HERRI BAT BIZITZEKO TURISMO BETAURREKO BERRIAK

TURISMO ESKAINTZA BAT BAINO GEHIAGO DA. ANBIZIO HANDIKO HERRI PROIEKTUA DA. HERRITARREK ERABAKI DUTE ZER ETA NOLA ERAKUTSI NAHI DUTEN, TURISMOA ULERTZEKO MODU ERABAT BERRIAN. > 12 Jon URBE | FOKU



4



8



Barbara Ehrenreich gogoan, emakumeen aldeko pentsalari eta ekintzaile nekazina 04

Ikusmira: Faxismoa edo dena delakoaren zirimiria 07

Surfa Gazan, gerra eta blokeoa ahazten saiatzeko ihesbidea 08

650 Usurbil Bizi, turismoari begiratzeko betaurreko berriak jantzi dituen herri proiektua 12

Heziketa digitala: erabilera segurua lantzeko arrazoiak 17


In fraganti: Luix Alberdi, «Beltza», bizitza bat dantzari eskainia 22

Urte bat Metarekin, apustu «figitalaren» gorabeherak 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



17



22

SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Negoziazioa beti indarrean dagoen balioa da

10 **Jonander Agirre Mikelez:** Ezkiak

11 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Normaltasunaren balioaz

16 **Amaia Ballesteros**

20 **Gorka Zozia:** Izarretako gerrarako prestatzen

21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Hitz batzuk absurdoari

27 **Maidor Iantzi Goienetxe:** Lehen euri tanta naiz

27 **Xabier Mikel Errekondo:** Statkraft vs GHK

30 **Maitena Usabiaga Sarasua:** Bisexualitatea



{ datorrena } Iñaki Soto

Negoiazioa beti indarrean dagoen balioa da

Uste dut badugula konplexu berri bat, arazo politikoen konponbiderik onena negoziazioa eta akordioak direla argi eta garbi esatea eragozten diguna. Jakina akordio horiek ez direla behin betikoak edo magikoak izaten, itunek gatazka berriak sortzen dituztela, eta aldian-aldian berriro negoziatu behar direla. Baina horrek ez du ekiditen gatazka konpontzeko modurik zibilizatuena eta eraginkorra izatea, edo, gutxienez, belaunaldi batzuei gatazkaren ondorio-rik kaltegarrienak saihesteko modurik efikazena izatea. Ez da gutxi.

Euskal independentismoak horixe defendatu du luza-roan. Diskurtso politikoaren atal nagusi bat zen eta gaur guztietarako balio zuen. Hala eta guztiz ere, azken urteotako gertakari politikoen ondorioz, elkarriketa gatazka konpontzeko mekanismo gisa defendatzeak indarra galdu du gure artean. Borroka armatuaren amaiera ordenatua eta estrategia aldaketa egiteko moduak, independentismoak bere kabuz eta Espainiako Estatuaren sabotaje iraunkorrekin aurrera atera zuena, aldebakartasuna bide bakarra zelako ideia indartu zuen. Perspektiba horrek urteotako inertzia negatiboak askatzea lortu zuen, baina ez da gai izan eremu guztietan berdin aurrera egiteko.

Hain zuzen ere, gaur bost urte betetzen dituen Kataluniako erreferendumak indar handiagoz bultzatu zuen ideia hori. Espainiako Estatuarekin akordioak lortzea ezinezkoa bada, bide bakarra independentziaren alde-bakarreko adierazpena da, betiere Kataluniako gizartearen agindu argi bati erantzunez. Tamalez, ezinezkoa izan zen. Egunotan, jendarte hori introspekzio ariketa batean ari da: zer gertatu zen, nortzuk izan ziren porrotaren erantzuleak, zer egin zen ondo eta, batez ere, zer egin zen gaizki. Gaur egun, ez dirudi oso emankorra izaten ari denik, baina agian perspektiba apur bat falta zaigu.

Beñat Zalduak azaltzen duen bezala, fatalisten aurrean eta gaur egungo gertaera etsigarrien ginetik, demokraziaren udazken labur hark ekarri zuen guztia aldarrikatu behar da. Etorkizunari begira, aste honetako argitasun-arau baten eskaerak esoterikoa eta gastatua dirudi. Ziur asko, errepublikanoek demokrata katalanen gehiengo oso hori berriro independentziaren arrastoan jartzeko topatu duten formula da. Dekantazio hori ezinezkoa da baldin eta hasieratik negoziatioari uko egiten badiozu.

Beste arlo batean, gerrek bandoak inposatzen dituzte, halabeharrez. Onak eta txarrak daude, direnak direla ere, eta batzuen alde egitea eta besteen aurka egotea betebeharra da. Neutraltasunak ospe txarra du iraultzaileen artean, horretarako irlandarra bezalako esperientziak mespretxatu behar badira ere. Kontua da Ukrainako ge-

Gerrek bandoak inposatzen dituzte. Onak eta txarrak daude, direnak direla ere, eta batzuen alde egitea eta besteen aurka egotea betebeharra da. Neutraltasunak ospe txarra du iraultzaileen artean

rran bandera bat hartu behar badut, nahiago dudala negoziatioarena eta gatazkaren konponbide diplomatikoa-rena. Uste dut errealismo ariketa bat dela eta, aldi berean, bertute politiko baten defentsa.

Nire ustez, negoziatioari politikagintzan indarrean dagoen balio iraunkor gisa eutsi behar zaio. Eta akordio-rako eta negoziatioarako tarterik ez dagoenean, boterea metatu behar da. Hau ez da, agian, dena irabazi edo dena galtzera jokatu nahi dutenentzako herri aproposa. Txikiek eta txiroek, baztertuek, ezin dute negoziatioa printzipioz ukatu, besteak beste, irabazteko beharrezko-ak diren biolentzia eta botere mailak ez daudelako beren esku. •

{ profila }

BARBARA EHRENREICH GOGOAN

Pentsalari eta ekintzailea, langile eta emakumeen aldeko pitbull-a

Mikel Zubimendi Berastegi

Desberdinkeria eta klaseaz, klasea eta desberdinkeriaz, AEBetan langile jendeak bizirik irauteko dituen komerietz, «amets amerikarraren» beste aurpegiak, alde ilunaz, zorrotz eta urruti idatzi zuen autore finenetakoak utzi gaitu. Barbara Ehrenreich zendu da, eta bere heriotzarekin AEBetako eta munduko ekintzaile eta ezkertiar asko umezurtz geratu dira. Gehiago bizitzeko desira induzituak hiltzen gaituela aztertu zuenez gero, agur esateko prest zegoen, eta lasai joan da, ideia bat azpimarratuz: gure bizitzan zehar ez ditugula irabaziko kausa eta borroka guztiak, eta hori ez dela eta ezin daitekeela izan gure neurria, gure neurri bakarra, baizik eta saiatze horretan hilko garela.

Kazetaria, entsegugilea, ekintzailea, politikoki engaiatua, bazterkeria sozialaren kronista... Ehrenreichen heriotzarekin AEBetako ezkeraren ahots argi eta errespetatuenetarikoa joan da. Bere elokuentzia, kuraia eta buru argia lan politikorako, bide berriak urratzeko, informatzeko eta mundua aldatzeko inportanteak izan dira, oso.

AEBetako iraultzaile askorentzat inspirazio eta sostengu izandakoa Butten (Montana) jaio zen 1941ean. Aita «*blue collar*» edo lepo urdineko alkandora zeraman langilea izan zen, klase kontzientziaren jabe zen meatzaria. Ama, aldiz, etxeoandrea izan zen. Ehrenreich ez zuen inoiz ahaztu nondik zetorren, kontzientzia hori beti eraman zuen soinean, pobreak maite ez dituen herrialde bateko zoko guztietara, harro zoragarri gainera.

New Yorkeko Rockefeller Unibertsitatean Biologian doktoretza bukatu eta zientziaren mundutik aldentu zen; akademian edo ikerketan ez zuen jarraitu nahi izan. Hori dena utzi zuen ekintza politikoa lehenesteko. Bere be-



Barbara Ehrenreich, klase pobreen bizimoduaren kronista, desberdinkeria sozialaren inguruan klasikoak bihurtu diren liburuen idazlea.
Wikipedia

IBILBIDEA 1941ean Butten (Montanan) jaio zen. Biologian doktorea, AEBetako ekintzaile eta saiogile zorrotza, Alderdi Sozialista Demokratikoaren goi kargudun eta feminismo sozialistaren erreferente globala izan zen.

launaldiko beste asko bezala, Vietnamgo gerraren kontrako mugimenduetan politikoki hezi eta hazi zen. AEBetako Alderdi Sozialista Demokratikoaren idazkariorde izateari baiezkoa eman zion. Alderdian, baina, beste hainbat esparrutan bezala isilik egoteko ez zenez, sueltu eta libre hitz egiten zuenez, arazoak eta desengainuak pilatu eta urruntzeari ekin zion.

ELKARRIZKETA POLITIKORA FRESKURA

1970eko hamarkadan Ehrenreichek freskura ekarri zuen eztabaida politikora. Orduan «baldintza objektibotant» egin behar zela indarra uste zuen ezkerrek, AEBetan ehunka talde mar-

xista eta maoistetan atomizatua zegoenak. Soldatetan zentratu behar zela, jendearen egoera materialetan, zen AEBetako ezker konstelazioaren ideia printzipala. Ehrenreichek marxismoa ongi ikasia eta gordea zuen, baina ez zuen soportatzen irentsiezina zen azukre koskor bat bezala ikustea, borroka kaindarretan disolbatuta, eta oso gartetatik beste puntu batzuk proposatu zituen elkarrizketa politikoa: alienazioaz hitz egin behar zela, pertsona bere potentzial guztiaren jabe egiteaz, zapalkuntzaren esperientzia zuzen eta pertsonalek zuten balioaz... Lehen momentu haietatik, berea ahots disonante bat izan zen, errespetatua. Izan ere, polemika eta eztabaida politikoa berea defendatzen pitbull bat zen. Gogorra, tematia, argudio landu eta zorrotzez ongi armaturikoa.

Biologia utzita, bere lanak hiru adar izan zituela esan daiteke. Baga, kazetaritzarena, iritzia saileko pieza eta entseguetan nabarmenduz, bereziki ezberdinkeria eta injustizia sozialen inguruan asko eta urruti idatziz. Biga, liburuak, hogeitik gora argitaratu baitzituen, dirua irabazi baino faszinazio moduko bat eman ziotenak, nolabaiteko jarraitutasun intelektual bat. Eta higa, ekintzailetasuna; osasungintzaren, bakearen, emakumeen eskubideen edo justizia ekonomikoaren aldeko jardun militantea. Sekula ez zuen ekintzailetasun politikoa eta kazetaritzaren arteko talka edo gatazkarik izan, kazetari bezala egia bilatzen zuelako beti eta printzipio moralak zituen pertsona bezala halako zerbait egitera behartua ikusten zuelako bere burua.

"Time" aldizkariaren zutabegile izan zen eta "The New York Times", "Mother Jones", "The Atlantic Council", "Ms" edo "The New Republic" bezalako argitalpenetan idatzi zuen. Irakaskuntza utzita, kazetaritzarako piezak eta liburuak dedikazio osoz idazteari ekin zion, buru-belarri. Giza kondizioaz eta esperientzia subjektiboaz jardun zuen, sarritan



berea lerroetara ekarriz, justizia sozialaz idazten zuten maila ertain-altuko kazetariez nekaturik, kazetaritza langile jende pobretuen eskura jarri zuen, makina bat autore berri eta proiektu zuzendu zituen. Finean, bizitzaren eta gizartearen detaileen gainean argia jaurti zuen, ordura arte ezohikoak ziren ikuspegi eta teknikak landuta.

PENTSAMENDU POSITIBOAREN KONTRA

Esan bezala, ez zen inprimatutako orrietan bertan goxo eta kieto geratzekoa. Ekintza maite zuen, konpromiso politikoa, justizia sozialaz ondo bizi ziren kazetariak bakarrik ez idaztea. Adibidez, "The New York Times" egunkarian 2008ko krisiaren lanketa nolakoa izan zen aztertu zuen eta ikusi zuen nola pilates entrenatzaile pertsonala ordaindu ezinik zebiltzanen klase profesionalen kezka eta penak jasotzen zituela gehienbat; jende pobrea, bizitzeko komeriak pasatzen dituen, aldiz, ez zela ia ageri sona handiko kaze-

taritzan. Eta ez zen azterketan eta diagnosian geratzen, ekintza behar zuen, eta hortik sortu zuen Economic Hardship Reporting Project delakoa. Miseria sozialaz miserian bizi zirenak idatzi zezaten laguntzeko. Horrelakoa zen bere engaiamendua, dozenaka proiektutan, gerren kontra, abortuaren alde, alderdi politiko sozialistetan, denetan.

Ehrenreich ez zen baikorra baina etorkizunaren inguruan esperantza bazuen. Ezta pentsamendu positiboaren aldekoa ere; sutu egiten zen ideia ho-

Marxismoa ongi ikasia eta gordea zuen, baina ez zuen jasaten irentsiezina zen azukre koskor bat bezala ikustea, borroka kaindarretan disolbatuta, «baldintza objektiboak» eta egoera materialak» kezka bakar eginda

«The New York Times»-en 2008ko krisia nola landu zuten aztertu eta ikusi zuen entrenatzaile pertsonala ordaindu ezin zutenen klase profesionalen penak jaso bai, eta, aldiz, bizitzeko komeriak pasatzen dituen jendea ez zela ia ageri

Ehrenreich feminismo sozialistaren arketipoa izan zen, emakumearen zapalkuntza kapitalismoaren testuinguruan aztertu eta borrokatzearen aldekoa.
Wikipedia

rrekin, alegia, zerbait existitzen bada, ona izan behar duela modu batean ala bestean, dela arrisku handiko hipotekak, dela minbizia edo lan prekaritatea. Horiek onartu, hartu eta xurgatu, hori zela optimismoaren pentsamenduak egiten zigun eskaera.

Bizitzeko lain ordaintzen ez duten lanek, bizi ahal izateko bizpahiru lanpostu kateatu behar izate horrek, ez duela pobrezia bukatzen laguntzen aipatzen zuen. Aitzitik, kondena bat zela zioen, bizitza miserablea eta muturreko segurtasun falta batean bizitzera milioika estatubatuar kondenatzen zituela. Desafiatzailea zen beti, kontra egitekoa, eta jende asko gauza askoren kontra jarri zuen. Bere pieza eta liburuak esnatzeko deia izan ziren, gizartearen baliabideak zein leku okerretara eta zein esku gutxitara bideratzen diren ohartarazteko, ikaragarri amorrarazten zuten langile eta pobreen aldeko bere herrialdearen sinpatia faltaz edo ezartzen diguten kontsumoaren kultura iraingarriaz. Beti ikusten zituen arraza, generoa eta klase dominazioa elkar loturik, osotasun batean, aberatsei mesede egiten zien sistema batean elkarrekikotasunean. Eta beti esaten zuen berdin: amorratioaren, sumintzearen zentzua ez zela sekula galdu behar.

LAU TXAKUR TXIKIREN TRUKE

Bere liburu arrakastatsuen, justizia sozialaren aldeko klasikoa bilakatu zena, "Nickel and Dimed" (lau txakur txikiren truke) izan zen. Eta izan zuen inpaktuak, besteak beste, AEBetan gutxieneko soldataren igoeran eragin zuzena izan zuen. Gonzo kontakizun bat da liburua, idazteko dena utzi zuen, AEBetako zoko txirotuenetan gela merkeenak alokatuz eta lan eskasnak onartuz bizitzera erabaki zuen. Garbitzaile, tabernari, zaintzaile, hipermerkatuko kutzazain... aritu zen hainbat estatutan, nahitara. Eta ez klase trabestismo ariketa bat egiteko, ezta miserian oporrak pasatzeko ere, ez, gutxie-

neko soldatapeko bizitzara bidaia izan zen berea, langile klasearen erretratua egiteko lehen pertsonan bizi behar zena. Langile klasea pobreen klase bilakatzearainoko metamorfosia azaltzen digu. Pobreen klasea, hainbat lan pilatu arren etxebizitza duin bat ordaintzeko lain irabazten ez duena, gaixotzeko beldurrarekin bizitzera kondenaturikoa, tratu duin bat ere merezi ez duena. Esperientzia penagarrien kronikagile benetan fina izan zen, eta paradoxikoki, horrek «izar intelektual», egile arrakastatsu bilakatu zuen.

Kontatu zuenez, lehen semea izateak feminista erradikal bihurtu zuen, eraldatu egin zuen, besteak beste, medikuak erditzea probokatu ziolako, prezaz, partida bat ikusteko etxera joan behar zuelako. Emakumeen osasunaren aldeko mugimendua, hortik aurrera, bere engaiamenduaren ardatz izan zen. Feminismo sozialistaren arketipoa zen. Emakumeek beren sexuagatik jasandako min eta eraso beldurgarrienak, sexismoa, ez dagoela ulertzetik, emakumeen bizitzetan nola eragiten duen jakiterik, kapitalismoaren kontestuan jarri gabe. Beldurra zuen feminismoak ez ote zituen lehenik gizonak askatuko, gero eta emakume gehiago dibortzio baten haritik zintzilik pobrezia kronikoaren amildegira erortzear utzita, gizonaren soldata altuagoaren faltan, bera eta umeak ezin sostengatuz.

Honen harira, euskaraz paratuta ere badago haren liburu perla bat, Deirdre Englishekin batera idatzitako eta Katakak-ek argitaratutako "Sorginak, emaginak eta erizainak". Osasun sisteman emakumeek duten posizioa nola ez den batere naturala aztertzen du, nola iraganean nagusi izan ziren eremuetan ere egun mendeko diren, gizonen nagusitasun hori nola probokatu den.

Esan bezala, gehiago bizitzeko desirak hiltzen gaituela uste zuen biologoa zen. Minbizia diagnostikatu ziotenean, sendagileek ez zela haserretu behar eta



Barbara Ehrenreich ez zen baikorra, baina etorkizunaren inguruan esperantza bazuen. Wikipedia

positibizatu behar zuela aipatu zioten, eta baikor izanda bakarrik sendatuko zela. Are, tumorea opari bat zela iradoki zioten. Esperientzia hartatik "Natural Causes: An Epidemic of Wellness, the Certainty of Dying, eta Killing Ourselves to Live Longer" liburu ederra idatzi zuen. Bere aurreko "Smile or Die" liburuaren haritik, pentsamendu positiboaren aurkako aldarria zena. Ez, ez zuen onartzen zorigaitz ikaragarrienak irribarre ergel eta gainditze espiritu batekin garaitu daitezkeela, edo gure gorputzen eta gure buruen gaineko erabateko kontrola izan dezakegula.

ZORIENTASUN KOLEKTIBOA ALDARRI

Bere begi zorrotzarekin joera sozialak aztertzen zituen, kasu honetan, gero eta sustraituago dagoen ideia hori: zaintzen bagara, gure elikadura zaindu eta kirola egiten badugu, bizimodu

Garbitzaile, zaintzaile, hipermerkatuko kutzazain aritu zen. Eta ez klase trabestismo ariketa bat egiteko edo miserian oporrak pasatzeko, ez. Klase pobreen bizitzara bidaia izan zen, kronika egiteko lehen pertsonan bizi beharrekoa

Pentsamendu positiboaren aurkakoa zen. Ez zuen onartzen zorigaitz ikaragarrienak irribarre ergel eta gainditze espiritu batekin garaitu daitezkeela, edo gure gorputzen eta buruen gaineko kontrola izan dezakegula

osasungarri bat badugu, heriotzari iskin egin eta bere etorrera atzeratu dezakegula. Obsesio hori, bere ustez, hain muturreraino eraman dugu, ezen gazte hiltzen denari, nolabaiteko autopsia moral bat egiteaz gain, susmagarri dela egozten zaion, behar zuen bezala bere burua ez zuelako zaindu. Berarentzat, bizitza luzatzea, existentzia luzatzera mugatuko balitz bezala, gauza atsegin pilo bati muzin egitea da. Gehiago bizitzeagatik hiltzen ari garela zioen, ez hobeto bizitzeagatik. Eta gehiago bizitzeko *fitness*, *mindfulness*, dietak eta halakoak desmuntatzeari ekin zion, ondo bizitzeko, pozarekin, gure hilkortasuna onartu behar zelako.

Ehrenreichek zorientasun kolektibora deitzen zuen uste sakon batetik abiatuta: ospakizunak gizarte baten osasunerako ezinbestekoak dira. Sufrimendua nonahikoa izan arren, plazer eta esperantza iturrien bila zebilen, bartzuetan ezusteko lekuetan topatuz. Berarentzat umoreak sekulako erasoia jartzeko gaitasuna du bere baitan, sumina eta amorrua ateratzeko daukan indarra estimatzen zuen. Ezkerreko ekin-tzaileei gomendiorik emateko galdegiten ziotenean, «ondo pasatu» zen berea. Eta azpimarra ere jartzen zuen: «Lan politikoak atsegingarria, lagunartekoa eta dibertigarria izan behar duela ez ahaztu; are, horrela izatea lortzen ez badu, ez du arrakastarik izango».

"Dancing in the Streets" liburuan jasoz zituen hauek guztiak. Elkarrekin zorientasuna ospatzea gure espeziearen berezko joera dugula zioen, mendetan dantza, mozerro eta jan-edanaren bitartez adierazi dena. Eliteek, hierarkia sozialak pitzatuko zituztelakoan, antzinako zorientasunaren ospakizunak jazarri zituzten. Festa giroak inspiratu zituen iraultzak, esklaboen matxinadak... izaki sozialak garelako. Zorientasuna partekatzeke sena dugulako, eta, beraz, etorkizun bat imajinatzeke eta sortzeke gaitasuna. Barbara Ehrenreich, gudan bego.



Alberto PIZZOLI | AFP

IKUSMIRA

FAXISMOAREN EDO DENA DELAKOAREN ZIRIMIRIA

Duela mende bat agindu zuen Benito Musolinik azkenean boterearen atea irekiko zizkion bere fascioen Erromarako Martxa. Ehun urte geroago, Georgia Meloni Italiako Anaiak (Fratelli d' Italia) eskuin muturreko alderdiaren buruzagiak hauteskundeak irabazi ditu Italian. Ziurrenik herrialdearen historian lehen ministro emakumea izango dena, gaztetan faxismoaren nostalgia bere egin zuena, adinarekin eta realpolitikak agintzen dituen konpromisoekin heldu egin dela diote -edo sinistu nahi dute- askok. Ez dituzte faxismoak, eta nazismoak, utzi zizkiguten ikasgaiak barneratu. Mugimendu politiko esentzialista haiek babes

edo gutxienez konplizitate asko izan zutelako bere garaian, alde batetik eta bestetik. Askatasunaren aldeko eta autoritarismo ororen aurkako borroka lehentasuna dela, Vladivostoketik Madrileraino, Kievetik Erromaraino edo Stockholmeraino, Pekinetik Washingtoneraino..., barneratzen ez dugun bitartean, dena delakoaren lanbroak (bost axola izena eta izenaren inguruko gerra) benetan berdinduko gaituelako, uholdearen ur azpian. Dabi Lazkanoiturburu

SURFA GAZAN

Gerra eta blokeoa ahazten saiatzeko itsasoratzen dira gazte palestinarrek

📁 PALESTINA / Saud ABU RAMADAN (EFE)

Gero eta gazte gehiago dira Gazako hondartzan itsas kirolak egiten saiatzen direnak. Egoera ez da erraza: etengabeko eraso militarrek eta Israelek ezarritako blokeoak asko zailtzen dute materiala lortzea eta kirola lasaitasunez egin ahal izatea. Surfa da indarra hartu duen kiroletako bat, baina arrauna eta bela ere hedatu nahian dabilta.

Gerra gertu duen herrialde batean aisialdiko aukerak bilatzea ez da batere erraza. Palestinaren kasuan, Israelek ezarritako blokeoa gehitzen badiogu, egoera larriagotu egiten da. Hala ere, itsas kirolak sustatzen saiatzen direnak badira bertan.

Gazako zerrendako gazteak, Israelek 2007tik ezarritako blokeoaren ondorioz mundutik isolatuta, itxialdi sentsazioa baretzen saiatzen dira itsasoko olatuak surfeatuz. Azken urteotan, kirol horrek jarraitzaile andana irabazi ditu zonaldean.

Ohol zaharrekin, gazte palestinarrek ia egunero ateratzen dira surfean aritzera. Hilabete eguzkitsu luzeak eta tenperatura altuak aprobetxatzen dituzte, Mediterraneoko urak entretenitzeko eta aske sentitzeko leku bakanetako bat baitira beraientzat.

Askok surfa egiten dute ordu luzez, goizean goizetik, hondartzara hurbildu eta itsasoaren egoera ikuskatu ostean.

GERO ETA GEHIAGO

Duela bost urte, kirol hau ez zen oso ezaguna Gazan. Palestinar gutxi batzuk hasi ziren praktikatzen eta, orain, 40 bat


gazte bilakatu dira surfzale. Batzuei etorkizunean profesionalak izatea gustatuko litzaieke, baina salatzen dute Israelen setioa dela-eta –merkataritza eta merkantzien sarrerak mugatzen dituena–, ez dituztela eskura hobetzen lagunduko lieketen tresna edo material guztiak, surf tauletatik hasita.

«Zazpi urte nituenetik aritzen naiz surfean, baina Gazaren blokeoarekin ez dago taularik, Israelek sartzea eragozten baitu», azaldu du Mohamed Abu Ghanem 24 urteko gazteak.

Ghanemek sorosle gisa egiten du lan hondartzan. Ikastaroren bat antolatu nahiko luke, baina blokeoa dela-eta, ezin du. Blokeoa duela hamabost urte hasi zen, Hamas talde islamistak Gazan boterea hartu ondoren.

Lurrez, airez eta itsasoz aplikatzen da setioa Gazan (bi milioi biztanle baino gehiago bizi dira bertan): Israel eta Egiptoko tropek itsas perimetroa inguratzen dute eta itsasontziren batek markatutako lerroak gurutzatzen baditu, tiro egiten dute bi aldiz pentsatu gabe.

Horrek asko murrizten ditu arrantza bezalako lanbideak, Gazako ekonomian tradizioa duen sektore indartsua. Surfa, arrauna, windsurfa, uretako



Irudi nagusian, haur bat Gazako hondartzan bere zaldia garbitzen. Behean, «Gaza Surf Club» dokumentaleko bi fotograma. Soliman HIJJY | GETTY IMAGES - GAZA SURF CLUB





«GAZA SURF CLUB», SURFLARI PALESTINARREI BURUZKO DOKUMENTALA

Palestina itsasoratzen diren surfarien errealitatea ez da oso ezaguna, baina erabat berria ere ez. 2016an, esaterako, Philip Gnadte eta Mickey Yamine zuzendariak «Gaza Surf Club» dokumentala aurkeztu zuten. Filmaren sinopsian surfak errealitate bereziki gogor batetik nolabait ebaditzeko duen boterea nabarmentzen dute: «Gazak 42 kilometroko kostaldea du, itsasontziei zerbitzurik ematen ez dien portu batekin. Ia ezer ez da Gazara sartzen, eta are gutxiago irteten. Hango belaunaldi gaztea oso perspektiba gutxiarekin hazten ari da, hutsik eta lanik gabe. Baina testuinguru horretan, mugimendu txiki bat dago. Gure protagonistak Gaza hiriko surf komunitatearen parte dira. 40 surf taula inguru ekarri dira herrialdera azken hamarkadetan, ahalegin handiz eta zigor zorrotzak ezarri arren. Taula horiek askatasun zati txiki bat esperimentatzeko aukera ematen diete, errealitate deprimigarri baten kostaldeko oroigarrien eta israeldarrek kontrolatutako 6 miliako itsas mugaren artean».

Agian horregatik, 2020an «Staf Magazine» aldizkariak egindako elkarrizketa batean, zuzendariak aipatzen zuten Gazako surfak eta surfariak badituztela munduko beste uraustietan oso gutxi ikusten diren zenbait berezitasun. «Matthew Olsenek, dokumentalean agertzen den surfleri eta aktibista batek, esan zidan Gazako surfa erabat desberdina dela munduko gainerako herrialdeetakoarekin alderatuta. Gaur egun, surfa oso kirol berekoa da, zure olatua zurea delako eta inor ez delako bidean gurutzatu behar zuk hartu duzunean. Gazan kontrakoa gertatzen da, bakarrik egon baino olatuak elkarrekin hartzea nahiago duten komunitate bateko kide izatea esan nahi duelako. Eskua ematen diote elkarri eta elkarri helduta surfeatzen dute. Mendebaldeko hondartzetan aurkituko ez duzun pentsamolde mota bat da», nabarmentzen zuten Philip Gnadte alemaniarrek.

«Gaza-surfariak komunean duten zerbait da, nolabait, denak daudela itsasoarekin lotuta: arrantzaleak, sorosleak edo biak aldi berean. Ingurune urtarrarekin identifikatzen dira. Hori ironikoa eta arraroa da eskualde hartan, jende askok ez baitaiki igeri egiten, eta ausartegizat jotzen dituzte ur mugituetan olatuak hartzeagatik», gehitzen zuten Mickey Yaminek.

Izan ere, argi dago palestinarren bizitza ezin dela ulertu gerra eta blokeoa kontuan izan gabe, baina egoera zail horri aurre egiteko ihesbideak ere garrantzitsuak dira Gazako gazteentzat. «Sarritan politika eta gatazka belikoak ilundu egiten duen gizarte eta kultura bat erakutsi nahi genuen. Mendebaldean ohituta gaude Gazako albisteek gerrari eta okupazioari buruz hitz egitera, hori baita albisteetan ikusten duguna. Ia ez dakigu nolakoa den bizitza kazetariak beren lana amaitzen dutenean, eta hori islatzen saiatu gara», dio Gnadte.

eskia eta halako kirolak gartzeko aukerak ere izugarri murrizten dira.

PROFESIONALIZAZIOA

Hala ere, badira horiek indartzen saiatzen diren erakundeak, hala nola Palestinako Bela eta Arraun Federazioa. Gazan itsas kirolak maite dituztenak batu nahi ditu, batez ere gazteak, kirol horiek praktikatzeko espazio edo baliabiderik ez dutenak.

Khaldun Abu Salim ardura-dun nagusiak adierazi duenez, Gazako ur kirolean ere eragina izaten dute «Israelen erasok». Hamabost urte baino gutxiagoan, zerrendak lau gerra handi jasan ditu (2008-2009, 2012, 2014 eta 2021), eta urrunago joan gabe eraso militar handia jasan dute abuztu honetan bertan, non gutxienez 49 palestinar hil diren Israelek talde palestinar islamistaren aurka egindako erasoaren testuinguruan.

Zentzu horretan, Bela eta Arraun Federazioak «gaitasun

falta du, ez dago arraun kirolean aritzen den ontzirik, ez eta klubik edo entrenamendu zentrorik ere», eta horiek oinarritzko elementuak dira kirolari batentzat, Abu Salimek deitoratu duenez.

Baina palestinar honek ez du amore ematen, eta itsas kirolean «Palestina tokiko mailan eta arabiar munduan ordezkatzeko gai» izango den talde nazional bat sortu nahi du. Oraingoan, Gaza hiriburuko Udalak lokal bat utzi dio federazioari kostaldean, eta laster arraun akademia bat irekiko dute, Palestinako lehena.

«Zazpi urte nituenetik aritzen naiz surfean, baina Gazaren blokeoarekin ez dago taularik, Israelek sartzea eragozten baitu», azaldu du Mohamed Abu Ghanem 24 urteko gazteak

Mohamed Abu Hasirak hamabi urte daramatza surfean eta nazioartean lehiatu nahi du, baina entrenatzaile baten falta sumatzen du, bere egoeran daudenei trebatzen laguntzeko

Bitartean, baliabiderik ez dagoenez, gazatarrek euren kabuz ikasten dituzte surfaren oinarriak, Mohamed Abu Hasirak bezala. Hamabi urte daramatza surfean, baina entrenatzaile baten falta sumatzen du, bere egoeran daudenei trebatzen laguntzeko.

Zailtasunak zailtasun, ez du itzaropena galtzen eta nazioarteko kirol topaketetan Palestinaren ordezkari izatearekin amesten du, «Palestinako herriak bizitza maite duela erakusteko, munduko beste herriek bezala bizitza normala izan nahi duela adierazteko».



Jonander Agirre Mikelez - @jonanderagirre
Arkitektoa

Ezkiak

arkitektura / zientzia / sexistentziak

3 BEGIRADA:

Artikulu hau argitaratzen denerako ziuurrenik ezkien patua idatzia izango da dagoeneko. Eta sorpresa handirik ez badago Zarauzko Nafarroa etorbideko 250 ezki epe motzean mozten hasiko dira.

Ez da ekintza isolatua. Inoizko udararik beroena pairatu dugun honetan, asko dira hiriguneetako zuhaitzen kudeaketan izandako esku-hartze neurrigabeak jasotzen dituzten notiziak. Marrutxipin Donostiarako sarbide berriari lekua egiteko 542 zuhaitz heldu moztu zituzten abuztuan. Uztailan Madrileko Castellana pasealekuko zuhaitz lerrokada oso bat bota zuten bidegorri bat eraikitzearen aitzakiapean. Beste hainbeste gertatu zen Bartzelonako Poble Nou. Sevillako Triana auzoan 100 urte baino gehiagoko ficus bat moztu zuten abuztuan. Eta horrela jarraitu genezake artikulu honen 3.000 karaktereak bete arte.

Hirietako zuhaitzak moztea erraza da udaletxeentzat. Edo aukera errazenetariko, hobeto esanda. Hiri batean dauden interes desberdinen artean zuhaitzak dira defentsarako tresna gutxien dituztenak. Ez dago babesten dituen lege zehatzik, planeamenduan ez dute (salbuespenak salbuespen) figura zehatzik eta haien babesa proiektuen sustatzaileen eskuetan geratzen da gehienetan. Funtsean zera gertatzen da zuhaitzei ez zaiela balio ekonomikorik aitortzen. Estatu mailan bada zuhaitzen balioa kalkulatzeko mekanismo bat, «Granada araua», baina hura aplikatzeko borondatea ezinbestekoa da.

Zarautzeko kasuan, zuhaitzen erais-tea herriaren saneamendu berria


eraiki ahal izateko ekintza ezinbestekoa dela argudiatu du Udalak. Ziur arazo honek badituela beste irtenbide batzuk. Ziur beste irtenbide horiek izango dituztela bestelako konplikazioak ere: garestiagoa agian, Diputazioarekin arazoak edo etengabeko negoziazioak bestela, bestelako afekzioak herriko beste txoko batean akaso. Badakigu udalek erresistentzia gutxieneko bidea hartzen dutela beti.

Granada arauaren bitartez Zarautzeko ezkien balioa kalkulatu bagen 4 milioi eurokoa izango litzatekeela defendatzen dute Tiloak plataformakoek. Hala eta guztiz ere, esango nuke pisu handiagoa izango dutela plataformak jaso dituen 5.000 luze sinadurek hauteskundeetatik hain hurbil gaudenean. Horixe baita

udaletxean dagoen EAJ alderdiak jaso zuen boto kopurua azkeneko hauteskundeetan.

Hau nire azken zutabea izango da orrialde hauetan eta ezkien patua ezagutu gabe utzi beharko dut. Beste batzuek idatziko dute hori. Jarrera pessimistarekin noa, idatzitako hamar artikuluetan nabarmen agertzen delako gaizki egindako ekintza gehiegiren pilatzea, izan zitezkeen lan egokien alboratzea, memoriaren nahastea, epe motzeko erabakien inposizioa, teknikari eta politikarien mediokritatea.

Eta konstatazio bat, osteguneko udalbatzarrean ezkien mozketak gelditzea erabakitzen baldin bada, Tiloak plataformako kideen lanari esker izango da. Herri mugimenduek hobetzen dituztelako gure hiriak. •



Ilustrazioa: JONANDER AGIRRE MIKELEZ

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Normaltasunaren balioaz

Biharko bat ez balego bezala, oporrek, parrandak eta abarrekoak konpultsiboki egitea normalizatu omen da. Datorrena miseriazkoa bada, hondamendia baino beste esperantzarik ez badago, dena gatatatu, bizi topera, neurrigabetasuna neurri hartu. Eta eskatzea libre, dena eskatu; eta bestela, mistela: lehertu dadila dena. Horretan ginela, bat-batean, lagunak kazetariei objektibotasuna eta neutraltasuna eskatzea normala zela aipatu zuen eta keinua aldatu zitzaidan, kopeta zimurto eta sesioari ekin genion.

Normala? Aipatu nion nola hauteskundeetako boto kopurua, edo txirrindularien sailkapenak, edo burtsaren taulak kenduta, eta horiek ere ez agian, ez dagoela objektibotasunik. Kazetaritza objektiboa, bere baitan, kontraesan ponposoa den kontzeptua zela. Salatu zezakeela, madarikatu, zerbaiten defentsan edo hura sustatzeko egiten den kazetaritza, pentsa zezakeela sortze berekoak omen dituen oinarriak –partzialtasun eza, neutraltasuna...– puskatzen dituela, kazetaria gertakizunak modu neutralean emateko dagoela, edo bere iritzi eta aurreiritziak soberan dituela.

Ez dut asko sinisten kazetaritzaren urrezko aro bat egon zenik, non objektibotasuna eta neutraltasuna araua ziren, non kazetariak lanetik kanpo uzten zituzten beren aurreiritziak, eta irakurleek libreki aukeratzen zuten beren iritzien sintoniako egunkaria. Kazetari bezala, eta kazetaritzaren fanatiko bezala, ez dut uste hori transmititu behar denik. Alegia, zalantzan jartzen dut irakurleei ezin zaiela esan nola izan behar duten onak eta nola txarrak, kritikoak izan behar diren ala ez, klimagatik kezkatu behar diren ala ez; beren kabuz, beren baitan, aurkitu behariko lituzketelako beren erantzunak. Antzinako filosofia da, bai, Sokratesen maieutika famatua: egia potentena norberak aurkitu duena da, ez kanpotik diktatua izan dena. Baina kazetaritza mailan, ez dakit, bada.

Niretzat objektibitatea eta neutraltasuna ez dira gauza bera. Oso ezberdinak dira, guztiz bateraezinak. Objektibotasuna errealitatea den bezalakoa bereiztea da, edo, gutxienez, hori egiten saiatzea. Neutraltasuna, aldiz, inongo gaietan inoren alde ez egitea. Ez dira gauza bera. Eta izango balira, ezin dira biak, den-dena eduki.

Objektibotasunak ez digulako gure iritziak izatea galarazten; aitzitik, iritzia izatera eta ematera deitzen digu. Komunikatzeko gure iritzia deserriratzeko irrealia eta etxekaltea da. Egongo da, egongo denez, nor bere iritziez ahaztu behar dugula dioenik, iritziak soberan daudela. Kazetaritzaren munduan oso inportantea dela garbitzen jakitea, kazetariak bere iritziak garbitzeko gai izan behar duela pentsatzen hasi ahal izateko. Zeren pentsamendua, askotan, iritziaren garbiketa eskatzen duen lan nekeza baita. Bai, baina...

Balioen talka horien oreka ezegonkorrari eutsi, egoerak etsi-etsiak eta aukerak jasanezin ez bilakatzeko. Normaltasuna da hori, gizalegezko herri baten eskakizuna

Ez, ezin dezakegu dena eduki; eta ezin dena ezin da eta gainera ezinezkoa da. Gure baitan guretzat merezi duten balioek elkarren kontra talka egiten dute, beti, ezinbestean: askatasuna eta berdintasuna, justizia eta errukia, partzialtasun eza eta maitasuna, talka betean dabilta. Eta talka horiek gure bizitzaren parte banaezinak dira. Eta hori dugu bizilegea: batzuk lortzeko beste batzuk sakrifikatu egin behar ditugula. Balioen arteko talkaren inpaktua leundu dezakegu eta gure egitekoa da horien oreka ezegonkorrari eustea, egoerak etsi-etsiak eta aukerak jasanezin ez bilakatzeko. Hori da normaltasuna, gizalegezko herri baten eskakizuna. Eta sarritan, hala da: normaltasunak daukan balioak beste balio batzuen gainetik du. •

650 USURBIL BIZI

Turismoari begiratzeko betaurreko berriak atondu dituen herri proiektua

Datorren urriaren 14an aurkeztuko du Usurbilgo Udalak 650 Usurbil Bizi izeneko proiektua. Turismo egitasmo bat da, baina hori baino gehiago ere bada: herri proiektu indartsua, ezohikoa eta berritzailea. Turismoa begiratzeko eta ulertzeko modua irauli nahi du, turismoa jendartea eraldatzeko tresna bihurtzeko. Turismoa, mundua aldatzeko.

Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak eta Jon Maia proiektuaren dinamizatzaileak azaldu dizkiote GAUR8ri egitasmoaren triapak. «Legealdi honen hasieran lehen tasun eta egitekoen plan bat osatu genuen eta egitekoen artean herri honek aspalditik zeukan etxeko lan bat jarri genuen: ikusiz herri honek badituela potentzialtasun ugari, baduela zer erakutsi, turismo ereduaren inguruan hausnarketa bat egiteko beharra ikusten genuen eta horren arabera turismo eskaintza bat osatzeko. Aurrez egin da zerbait, ezaguna Harria Hitz kultura ibilbidea. Baina ikusten genuen ez zela aski, Usurbilek proiektu osoago bat behar zuela. Proiektuaren parte izan behar zuten osagaiak nahiko identifikatuta genituen, puzzlearen piezak bagenituen, baina pieza horiek josiko zituen proiektu bat falta zen. Proiektua baino gehiago, horri guztiari lotura emango zion errelato bat eraikitzea falta zen», azaldu du alkateak.

Turismo ereduaren inguruko eztabaida bizi-bizi dago. Uda honetan bertan turismoak Euskal Herriko hainbat tokitan utzi duen arrastoak zeresana eman du. Bide horretan, Usurbilen garbi zeukaten zer ez zu-

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Turismoa inbaditzailea, kontrolaezina eta kanpokoari begira pentsaturikoa izaten da askotan. Usurbilen konbentzitura daude izan daitekeela bestelakoa, herriak eta herritik pentsatua. Herriak erabaki dezala zer erakutsi nahi duen eta nola. Aitzindaria den proiektua abiatu dute, turismoaren gaineko ohiko begirada iraultzen duena.

ten nahi, zein turismo eredu ez zuten nahi, baina horren alternatiba josteko hariaren bila zebiltzan; egungo turismo ereduetatik kanpoko beste bideren baten bila. Hausnarketa horren bueltan zebiltzala topo egin zuten Jon Maiarekin.

«Urteak daramatzat gaiari bueltak ematen. Turismoaren gaia asko interesatzen zait. Turismoa oso estigmatizatuta dago, albo-kalte ugari dituen sektore bat da, kontrolatzen oso zaila, kulturalki inbasiboa izatera iristen da, eragina du he-

rritarren bizitza kalitatean –salneurriak, alokairuak, aparkalekuak...–, mentalitate aldaketa bat eragiten du pixkanaka, kanpokoari begira eraikitzen den gizarte bat eragiten du... turismoa gai konplikatu da eta asko eragiten du herri baten identitatean. Beti ari gara turismoa kritikatzeko, baina kritikatzeko gain, pentsatu beharko genuke eredu bat gure balioekin bat egingo duena, alternatiba bat sortu beharko da... Eredu propio baten bilaketan abiatu beharko genuke,

Behoko irudian, Usurbilgo kaxkoa. Euskararen herria da Usurbil eta horri balioa eman eta bisitariak erakartzeko ezaugarri bihurtu nahi dute.
Jon URBE | FOKU

norberaren balioak traizionatu gabe. Eta horri bueltaka hasi nintzen. Azken finean, ideia nagusia da turismoa ere beste mundu bat posible dela erakusten duen tresna eta eremu bihurtzea. Turismoa gizarte eraldaketarako tresna bihurtzea. Badirudi antagonikoak direla bi ideiak, baina hori da asmoa, turismoa mundua aldatzeko tresna bihurtzea».

650 URTE, 650 USURBIL

Gogoeta eta nahi horretatik sortu da 650 Usurbil Bizi herri proiektua. Zenbakiak baditu gutxienez bi ertz. Batetik, iaz Usurbilgo herriak 650 urte bete zituen eta mendeurren hori jasotzen du. Bestetik, 650 Usurbil daudela esateko balio du, herri ugari herri bakarrean. «Usurbil asko daude eza-gutzeko eta bizitzeko. Bizi, bai bertakoek bizitzeko herria, proiektua herritarrei bideratua dagoelako. Eta, bizi, kanpora begira, Usurbil bizi ahal izateko kanpoko eskaintza bati begira ere badagoelako. Bi norabide ditu, herritarrak eta bisitariak. Bertakoek zein bisitariak Usurbil horiek denak bizitzeko proiektu bat eraiki dugu», esan du Maia.

Usurbil eta turismoa. Zer nezesidade? Pentsatuko zuen honetzeko baten batek. «Turismoaren inguruan daukagun ideia desmuntatu behar dugu. Beste hitz baten bila ere aritu naiz, turismo hitza txarrerako kutsatua dagoelako, baina ez dut topatu. Zer nezesidade? Bada, mundua aldatu nahi dugu. Usurbilek gauzak egiteko beste modu bat dauka eta hainbat eremutan ikusten da hori. Beste gizarte eredu bat eraiki nahi duen herri bat da eta bisitariak erakutsi nahi diegu posible dela beste mundu bat eraikitzea, posible dela





gauzak beste modu batera egi-
tea, Usurbilen modu horiek
ezagutu eta beren herrira era-
man ditzaten».

MOLDEZ ERE BERRITZAILEA

Turismo eskaintza berritzailea
da. Alkatearen hitzetan, «ga-
rantzitsua da zuk argia non
jartzen duzun, zer ikusarazi
nahi duzun. Galdera batzuetatik
abiatu gara: Zer da Usurbil?
Zerk ezaugarritzen du? Zein-
tzuk dira herriaren nortasun
ikurrak? Nola proiektatu nahi
dugu identitate hori? Bi di-
mentsiotan, gainera, herrira
begira eta kanpora begira».

Moldez ere berritzailea da,
parte-hartze prozesu baten bi-
dez erantzun baitituzte alkate-
ak mahai gainean jarritako gal-
dera horiek. Prozesu horretan
herriko eragileak izan dira pro-
tagonista, haiek erabaki dute
zer erakutsi nahi duten, zer
den beren herria. «Normalean
turismoan alderantziz gerta-
tzen da, turismo operadoreek
erabakitzen dute zer saldu eta
nola», esan du Solaberrietak.
«Hasieratik bestelako turismo
eredu bat eraiki nahi badugu,
garrantzitsua da nola hasten
garen. Eta garbi genuen behe-
tik gora izan behar zuela eta
modu kolektiboan. Lehen aipa-
tutako galdera horiei modu ko-

lektiboan erantzun diegu», ja-
rraitu du.

Hartara, Jon Maia herriko 40
eragile desberdinekin elkartu
da. «Zer dagoen martxan, zer
botatzen duten faltan... Usur-
bilgo puzzlea osatzen duten
pieza guztiak identifikatu eta
mahai gainean jarri ditugu».

Elkarrizketa horietatik ondo-
riotzatu dute Usurbilen identi-
tatea zerk osatzen duen eta ho-
riek nola erakutsi eta bihurtu
eskaintza turistiko. «Herriaren
identitatearen parte den onda-
rea jasotzen da, ez soilik onda-
re materiala, baita ondare im-
materiala ere. Eta baita
Usurbilek gaur egun martxan
dituen proiektu eraldatzaileak
ere. Proiektu horiekiko eta ba-
lio horiekiko interesa izan de-
zakeen bisitari hori erakarri
nahi dugu», esan du Solabe-
rrietak.

Produktu turistiko desberdi-
nak josten ari dira, guztiak he-
rriko eragileekin elkarlanean.
Batzuk dagoeneko herrian
dauden ekimenak dira, balioa
eman, distira atera eta eskain-
tzeko moduan jarriko dituzte-
nak. Beste batzuk berriak dira,
turismoa begiratzeko betau-
rreko berri horietatik espresu-
ki sortutakoak.

Jon Maiak nabarmendu due-
nez, «altxorrez beteta dagoen



Erriorearen Usurbil, Zaintzaren
Usurbil, Sagardoaren Usurbil...
hamalau ezaugarri nabarmendu
dituzte herriaren bueltako
turismo eskaintza josteko
orduan.

Jon URBE eta Gorka RUBIO | FOKU

herri bat topatu dut, gizarte
eredu alternatibo bat eraikita
daukana. Usurbilen dagoeneko
gauzak beste modu batera egi-
ten dira. Turismoarekin ez du
izan inolako harremanik ez du-
gulako pentsatu inoiz hori era-
kargarria izan zitekeenik ino-
rentzat. Eta ni liluratuta nago
eta liluragarria izan daiteke
beste askorentzat ere». Begira-
da zabaldua, «garrantzitsua
da eredu berri hau aplikagarria
dela kasik edozein herritan.
Kontua da guk balioa ematea
gure berezitasunei, guk eraba-
kitzea zer erakutsi eta nola eta
onuraduna herria izatea. Kan-

potik datorrenari esan 'guk he-
men gauzak beste modu bate-
ra egiten ditugu. Ezagutu gai-
tzazu eta gozatu ezazu'. Hori
Euskal Herrian herri askok
esan dezakete. Turismoaren
kontzeptua aldatu egin behar
dugu. Turismo hitza entzun
eta burura zer datorkigun alda-
tu behar dugu. Hori aldatzera
goaz Usurbilen eta horrek eka-
rriko du bisitaria ere agian al-
datzea».

HAMALAU USURBIL

Elkarrizketa eta bilketa proze-
su horietatik abiatuta, hama-
lau Usurbil daudela ondorioz-

Herriko eragileekin batera egindako prozesuan, hamalau Usurbil identifikatu dituzte: sagardoaren Usurbil, euskararena, kaleko artearena, txalapartarena, zaintzarena...

«Usurbil horietan guztietan bada ezaugarri komun bat: herri bizia da, inguruan gertatzen denarekiko eta bere komunitatearekiko konpromiso sozial eta politiko handia duena»

tatu dute. **Sagardoaren Usurbil**; sagardoa, sagardogintza eta bere bueltako unibertso guztia herri identitatearen zati garrantzitsua baita. **Euskararen Usurbil**. Usurbilen ezaugarrietako bat da euskararen erabilera handia. Beraz, Usurbil helmuga egokia izan daiteke euskaraz egun bat pasa nahi duenarentzat. Besterik gabe Usurbila etorri eta euskaraz bizi. «Hori bere horretan hor dago, baina guk balioa eman nahi diogu eta eskaintza bihurtu. Askotan ez diogu euskarari balioa ematen, ez dugu ikusten erakargarria izan daitekeen zerbait bezala, baina euskaldun asko egon daitezke haurrekin egun-pasa bat euskaraz egin nahi dutenak», esan du Maiak.

Nekazarien Alkartasuna Kooperatibaren Usurbil. Ehun urte baino gehiago dituen erakundea da, herriaren antolakuntza eredu eta ondare baliotsua. Izugarritzko mugimendua dauka; hori ezaguturazi eta balioa eman nahi zaio. **Zero Zabor Usurbil**. Europa mailan hondakinen tratamenduan lehen mailan dago. Europako abangoardian dago adierazle guztien arabera. Hori nabarmendu nahi dute eta turismo eskaintza bihurtu. Usurbil herri aitzindaria da zaborraren kudeaketan, herriaren gaur egungo ezaugarri nagusietakoa bihurtzeraino. Eredua ezagutu nahi duen oro etor daiteke bisitan. **Errebotearen Usurbil**. Zubietako frontoia eta pilota jarduera berezia na-

barmentzekoak dira. **Txalapartaren Usurbil**. Artze anaiak txalapartaren pizkundean protagonista izan ziren eta orain Oreka TX taldeak Usurbilen du egoitza. **Naturaren Usurbil**. Andatza, Mendizorrotz eta Arratzain mendiek inguratuta, oinez zein bizikletaz egiteko aukera ugari daude. Horiek bildu eta eskaintzea da asmoa. **Errioaren Usurbil**. Lan honen bidez erriari begira jarri nahi dute herria. Auzoak lotzen ditu eta itsasorako atea da. **Angularen Usurbil** ere nabarmentzeko da.

Memoria historikoaren Usurbil. Usurbil 1936 taldea 36ko gerraren memoria historikoaren bueltan lan bat egingen ari da. Horrek ere izango du tokia. **Ez Dok Amairuren Usurbil**. Euskal kulturaren aparteko garrantzia daukan herria da Usurbil. Ez Dok Amairuren historiari lotua dago, bertako partaide batzuk herriko semeak zirelako. Mikel Laboarekin lotura oso berezia dauka, Zumeta, artzetarrak, Remigio Mendibururen eskultura, Rikardo Arregiren hitzaldi historikoa herrian... Usurbilek leku propioa dauka euskal kulturaren mapan.

Kaleko Artearen Usurbil. Usurbilgo kaleak artez beteak daude: Zumeta, Alejandro Tapia, Remigio Mendiburu, Arrastalu, Xabier Laka, Irantzu Lekue, Judas Arrieta... hori ere balioan jarri nahi du egitasmoak. **Zaintzaren Usurbil**. Herria aitzindaria izaten ari da zaintza eredu berrien bilake-



Lehen lerroan, Remigio Mendibururen eskultura. Atzeko partean, Judas Arrietaren horma irudia. Usurbil aberatsa da kaleko artean eta hortik tiraka sortu dute Usurbil Museo Irekia kontzeptua. Gorka RUBIO | FOKU

tan. Matiarekin batera zaintza behar bereziak dituztenentzako apartamentuak eraikitzen ari dira eta Txirikordako belnaldi arteko etxebizitza komunitarioa ere hor dago.

Ondare historikoaren Usurbil. Errotarriak, baserriak, mugarriak... ondare hori zaindu eta gozagarri jartzeko lan handi bat egin da.

ERRITMO DESBERDINAK

Aipatutako hamalau Usurbil horiek jarri ditu mahai gainean proiektuak. «Usurbil horietan guztietan bada guztiak ardatzen dituen ezaugarri bat: Usurbil herri bizia da, inguruan gertatzen denarekiko eta bere komunitatearekiko herriarren konpromiso soziala eta politikoa handia da, auzolanean aritzen den herria da eta horren isla da gure herriaren gaur egungo argazkia. Artzeren poema batek esaten duenez, 'iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik'. Uste dut ondo irudikatzen duela nola ari garen herria eraikitzen; iraganetik oraina

eraikitzen, baina etorkizuna zerumugan. Eta etorkizuneko erronka horiei tokikotik erantzuten eta elkarlan publiko komunitario batean oinarrituz egitasmo eraldatzaileak martxan jartzen».

Nabarmentzen dutenez, turismo eskaintza bat baino gehiago da 650 Usurbil Bizi. Herri proiektu bat da, erritmo desberdinak eta epe luzerako begiratu dituen. Maiaren hitzetan, «hamalau Usurbil horiek dira herriaren identitatearen ezaugarri nagusiak. Horietako bakoitzak eskaintza sorta izango du. Batzuk egitasmo handiak eta epe luzera begirakoak dira; beste batzuk er-tainak eta epe laburrera; eta beste batzuk txikiagoak dira eta epe motzean martxan jartzeko modukoak».

Proiektua bigarren fasean sartu da eta hausnarketa sarkon horretatik piztutako lehen printzak errealitate bihurtzen hasiko dira. Urriaren 14an aurkeztuko dute proiektuari lotutako webgunea. Atari horrek jasoko du proiektuaren arima eta turismo begirada berritza-



le horretatik prestatutako eskaintzak. Adibidez, Euskararen Usurbil martxan da dagoeneko, «etorri eta gozatu». Sagar doaren Usurbili dagokionez, agenda eguneratu bat izango da web atarian: e formakuntza ikastaroak, sagardotegiak...

Hasierako eskaintza izarretako bat Usurbil Museo Irekia izango da. «Mapa bat osatu dugu eta eskuorriak. Usurbilen dauden artelan guztiak ezagutzeko materiala sortu dugu. Usurbil izugarritzko aberatsa da horma irudietan: Irantzu Lekue, Judas Arrieta, Zumeta, Axpi, Arrastalu... herri gutxik daukate Usurbilek daukan horma irudien bilduma, edonoren eskura, dohain», nabarmendu du Maiak. Eskultura sarea ere oparoa da: Laka, Mendiburu, Zumeta, Gorriti...

Zumetaren horma irudiak, pilotalekuaren atzeko partean dagoenak, 50 urte bete ditu 2023an. Horma irudi hori da, hain justu, proiektuaren ikonoa. «Euskal Herriko horma irudi sinbolikoena da. Datoren urtean 50 urte beteko ditu eta hainbat ekimen antola-

tzen ari gara Euskal Herri eta nazioarte mailan ikonoa izan dadin. Dimentsioengatik eta ezaugarriengatik bakarra da. Eta Euskal Herriko historiako artistarik ezagunenetakoak egin zuen. Uste dugu ez daukala merezi duen presentzia Euskal Herriko arte erakusleahoan. Usurbilek daukan perla da, altxorra, edonoren eskura dagoena. Ekimen interesgarriak ari gara antolatzen Zumetaren familiarekin batera», jarraitu du proiektuaren koordinatzaileak.

«Usurbilek hor dauka, aspalitik, baina guk egingo duguna da, proiektu honen filosofiarekin bat, balioa eman eta erakutsi. Guk erabakitzen dugu zer eta nola», gaineratu du Solaberrietak.

Lehen txanpa honetan martxan jarritako beste proiektua Ez Dok Amairuren parke publikoa da. «Ez Dok Amairuren unibertsoan oinarritua, Kabiene coworking-gunearekin elkarlanean ari gara, Anaerreako parkea Ez Dok Amairuren parkea bihurtzeko. Kabiene diziplina desberdinetako jen-

Memoria historikoaren Usurbil ere nabarmentzen du turismo proiektuak. Irudian, duela aste batzuk Iribide inguruan 36an fusilatutakoaren omenez inauguratutako oroigarria.
Jon URBE | FOKU

dea aritzen da eta elkarrekin diseinatuko dute parkea. Natura eta kultura uztartuko dituen gunea eta, era berean, Ez Dok Amairu ezagutzera emateko tokia izango da. Kultur transmisioaren gune izatea nahiko genuke», esan du alkateak.

Gabon garaiari begira, 650 Usurbil Bizi otarra diseinatzen ari dira. «Proiektu honen balioak biltzen dituen otarra izatea nahi dugu. Bertako ekoizleekin eginikoa, baina ohiko otarrak normalean janariz osatzen dira. Kasu honetan, janariaz gain, barne hartuko dituzte musika taldeen diskoak, liburuak, herriko diseinatzaileen arropak... Beste otar kontzeptu bat sortu dugu herriko merkatarik elkartearekin eta Alkartasuna kooperatibarekin batera. Horko irabazien onuradunak ekoizle horiek eta merkatarik izango dira», esan du Maiak.

Proposamen eskaintza horretan aurreikusita daukate epe laburrean Zero Zabor bisita gidatuak eta zaintza ereduari lotutakoak martxan jartzea. Alkateak nabarmendu duenez, dagoeneko gai horiek bisitak ekartzen dituzte herrira.

Horrez gain, Mikel Laboa plazan informazio gune bat jarriko dute, bi metrotik gorako totem bat izango da. Interneteko leihoaz gain, garrantzitsuztat jotzen dute proiektuak kalean presentzia izatea eta totem hori izango da ekimenaren irudi nagusia.

BEGIRADA LUZEKO PROIEKTUA

«Epe luzeko proiektua da. Herri proiektua. Eta norabide horretan ari gara lanean. Dimentsioa handia da, baliabide propioekin eta mugatuekin ari gara eta epe luzerako begirada behar da. Garrantzitsua zen nondik hasi. Webgunea izango

da guztiaren hasiera. Hortik aurrera joango gara eskaintza zabaltzen», esan du Solaberrietak. Gaineratu duenez, «niretzat herri proiektu oso garrantzitsua daukagu esku artean. Usurbilen identitatearen inguruan errelato bat eraikitzen du eta barne proiektzioa garrantzitsua da, gu asko zaintzen ari garena. Guk lortzen badugu errelato horrekiko, herri identitate horrekiko kohesio bat, horrek ekarriko du proiektu honekiko herritarren babesa, atxikimendua, lotura... herri identitate horrek harrotasun bat sortu behar du eta kanpora begira erakusteko gogo bat piztu. Garrantzitsua da denon artean adostea zer den kanpora begira erakutsi nahi duguna. Herriko eragileekin egiten ari garen lanketa horrek dagoeneko onurak ekarri ditu. Gerora ez dakit zer emango duen, baina dagoeneko egiten ari den lanari balioa eman nahi nioke. Herria dinamizatzen ari gara adostasunetik, kohesiotik eta harrotasun horretatik. Hori garrantzitsua da jendea pizteko eta proiektu honetara erakartzeko. Horretan ari gara».

Urtero diru partida bat egongo da proiektu desberdinak martxan jartzeko, pixkanaka eskaintza zabaltzeko. «Proiektua sortzen eta dinamizatzen Jon Maia aritu da, baina Jon ez da betirako hemen egongo. Herriko eragile desberdinak daukate proiektuaren ganean eta guretzako hau dinamizatzeko elkarte aproposa Noaua da. Dagoeneko martxan daukagu lantalde bat proiektuaren inguruan eta Noaua ere parte da. Aurrerantzean bere zereginetako bat izango da hori dinamizatzeko. Proiektuak langile bat izango du eta bulego bat martxan jarriko da», aurreratu du alkateak.

LUR AZPIKO ABENTURAK



BIHARAMUNEAN, EUSKAL OASIA TELEBISTAN...

ERRAUSTEGIAREN SEGURTASUN ARDURADUNAK BARRASKILO BATI LEPORATU DIO ERREKAN AGERTUTAKO ISURKETA. ERAKUNDE EZBERDINEK UR AZTERKETAK EGIN BADITUZTE ERE, ERRAUSTEGITIK DIOTEN BAKARRA HONAKOA DA: HAI EK EZ DIRELA KAKA HORREN ERANTZULE ETA BLA, BLA, BLA...

iRRITZIA:



Amaia BALLESTEROS

AB'22

HEZIKETA DIGITALA

Adin txikikoen arazoak eta arriskuak, erabilera segurua lantzeko arrazoi sendo

📁 JENDARTEA / Nerea Goti

Ikasturtez ikasturte, gero eta indar gehiagorekin mahai gainean agertzen den gaia da heziketa digitala, haur eta nerabeen artean erabilerak duen bilakaera kontuan hartuta, eta batez ere erabilera denbora eta moduekin sor daitezkeen arriskuei erreparatuz. Bistan da covid-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako konfinamenduarekin eta ondorengo harreman sozialen murrizketarekin, orokorrean, baina batez ere haur eta nerabeen artean, izugarriko gorakada izan zuela teknologia berrien erabilerak.

Aisialdian ez ezik, eskola munduan ere azkartu da digitalizazio prozesua. Edonon daude pantailak, konexioa... Normaltasunerako itzulera bete-betean, hor jarraitzen du gazteen erabilera handi horrek, handiegiak batzuetan, baita erabilera ezegokiari lotutako arriskuek ere, horietaz gehiegi jabetzen ez bagara ere.

Egoeraren inguruko zertzelada batzuk eman ditu berriz Macsonrisas proiektuak, pasa den ikasturtean ikasleekin, familiarekin eta irakasleekin egindako saioetan ikusi eta entzundakoa oinarri hartuta, eta laburbilduz hiru ondorio nagusi atera daitezke: dispositibo digitalak, sare sozialak, online jokoak... gero eta adin txikiagoarekin erabiltzen dituzte Lehen Hezkuntzan, gero eta erabilera denbora luzeagoa dute aste barruan eta, batez ere, asteburuan, eta oro har ezjakintasun handia dago mundu digital horren atzean dauden arriskuen inguruan, bai haurren artean, bai familian eta bai eskola munduan. Erasoez ere ohartarazi dute: «Eraso digital larrien kasu asko ikusten hasi gara». Gazteen ar-

Haur eta nerabeek teknologia berriez egiten duten erabilera deskribatu du Macsonrisas proiektuaren txosten berri batek LH, DBH eta Lanbide Hezkiketako ikasleekin, familiarekin eta irakasleekin izandako makina bat saiotan oinarrituta. Kezkarako hainbat motibo dago, gaia lantzeko eta denbora eskaintzeko arrazoi beste.

tean, gainera, jazarpenaz, eta «sextorsioaz» ohartarazten dute, baita fenomeno berri batez ere: online donazioez.

Pasa den ikasturtean, 84 ikastetxetan, ikasleekin 1.300 saio baino gehiago egin zituen Macsonrisasek. Familiarekin 130 saio egin zituen, eta beste 60, irakasleekin. Horietan ikusitako esperientziarekin josi du bere azken txostena. Komeni da gogoan izatea «teknologiaren erabilera kontzientea, se-

gurua eta osasungarria sustatzea» helburu duen proiektua dela Macsonrisas, eta ikuspuntu horretatik, arriskuen ohar-tarazpena dela ematen duten formakuntzaren ardatz nagusietako bat.

IKUSTEN EZ DIREN ARRISKUAK

Hortaz, erabilera egokiaz eta arriskuez hitz egitea tokatzen zaie, eta ikuspegi horretatik panorama ilunagoa marrazten du esperientziak. «Arriskuekin

Macsonrisas-en txostenak ohartarazten du, askotan online joko bakoitzeko gomendatutako adina errespetatzen bada ere, beste pertsona batzuek nola jokatzeko duten ikusten dutela haur eta gazteek Youtube edo Twitch bidez. Iñigo URIZ | FOKU



lan egiten dugu; beraz, gure begirada ezkorra da», dio Julen Linazasoro proiektuko arduradunak.

Finean, arriskua ez dira teknologia berriak, adin txikiak horietaz egiten duten erabilera baizik; eta mundu horretan, helduak oraindik apur bat des-pistatuta dabiltzala ondorioztatzen du esperientziak.

Hego Euskal Herrian, Lehen Hezkuntzan (LH), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Batxilergoan eta Lanbide Heziketan egin dituzten saioetan ikusitakoan oinarritu da txostena. Formakuntza ez da ikastetxeetan emandako saioetara mugatzen, hainbat kultur etxe, liburutegi, gazte-leku eta enpresak eskatu zuten heziketa digitala. Udan, Donostian izandako Biktimologia Munduko Elkartearen Nazioarteko sinposioan hartu zuen parte Macsonrisasek.

Emaitzak bi multzotan banatu dituzte, LHn eta DBHn antzemandako paisaia digitala bereizteko. Eskolako lehen etapa horretan, adin txikiago-ko erabiltzaile gehiago aurkitu dituztela diote, eta urtero ikusten duten joera berresten du horrek. Izan ere, LHko 3. mailan hasten dira. «Erabiltzen dituzten online joko guztiak esaten dizkigute inolako estalkirik gabe», diote, eta horietako gehienak 12 urtetik gorako jokalarientzat pentsatuta daude.

«Ikusi dugu 3. mailakoek egiten duten erabilera uste genuena baino askoz okerragoa dela: erabilera denbora luzeagoak, eurak baino askoz zaharragoentzako diren jokoak, eta denak ez badira ere, sare sozialetan hasten diren asko», zehaztu du Linazasorok.

Batez ere online jokoekin lotuta, entzun eta jasaten di-

tuzten irainak eta mespretxu hitzak azpimarratzen dituzte formakuntza ematen duten adituek. Horien «normalizazioaz» ohartarazi dute. «Niño rata» bezalako irainak aipatzen ditu adibide gisa Linazasorok. «Ez dituzte irain gisa identifikatzen, eta normaltasunez erabiltzen dituzte euren artean min eman nahi ez dutenean ere», erantsi du.

Jokoetan, huts egiten dutenean ohikoak izaten diren haserrealdiak edo jokoetako protagonisten arteko elkarrizketetan agertzen diren gai desagokiak (indarkeria, pornografia, matxismoa...) aipatzen dira txostenean, baita streamer-ek egiten duten haserrealdien imitazioa ere.

SARE SOZIALETAN, 3. MAILAN

Sare sozialen erabilerarekin lotuta, ikusi dute LHko 4, 5 eta 6. mailetan ohikoak direla TikTok, Youtube, Twitch, WhatsApp edo Instagram, baina «harriduraz» ikusi dute dagoeneko 3. mailako ikasle batzuek ere erabiltzen dituztela. Sare gehienak 13 urtetik gorakoentzat direla gogoratzen dute.

TikToken erabilerari aparteko kapitulua eskaini diote, ezezagunekin kontaktuan egoteko arriskua dakarrelako, eta eduki desagokiengatik edo Pornhub bezalako plataforma batzuetarako ematen duen sarbide zuzenagatik. Sare horretara (eta beste zenbaitetara) igotzen diren bideoak ere aipatzen dituzte, haurrak ez baitira konturatzen irudiak eta eman duten informazioa noraino irits daitezkeen.

Erronkak egitearena da zabaldu den beste fenomeno bat. Linazasororen hitzetan, arrisku nabarmena duten batzuk egin dira ospetsu azken boladan, «mataleon» delakoa

Buru osasunarekin lotuta, sare sozialak diren erakusleihan gorputz eta bizitza perfektoren ilusioa eraikitzen duten mezuek duten eraginaz eta gainesposizioaz ohartarazi dute adituek

Desinformazioa, uste faltsuak, ezezagunez daukaten irudia edo jarratzaile kopuruaren arabera izaten diren bereizketak aipatzen ditu Macsonrisas proiektuak bere azken txostenean

tartean (karate teknika batekin laguna konorterik gabe uztean datza) edo 48 ordutan desagertzea eta familia eta lagunaren erreakzioak grabatzea.

Edozein testuingurutan, pribatutasunaren babesa da huts egiten duen beste kapituluetaiko bat. «Badakite ezezagunei ez dietela informazio pribatu-

rik eman behar», baina ez dira jabetzen konturatu gabe ematen dutela, eta «ez dakite euren kontuak babesten».

Horrez gain, egiten duten erabilerak familiaren gainbegiradarik ez duela izaten dio txostenak, eta haur eta gazteek ezezagunaren figuraren inguruaren egiten duten okerreko identifikazioaz ohartarazten du: «Haiatzat ezezaguna izateari uzten dio joko berean jokatzeko badu eta edozer gauza kontatzen badie edo euren kideek ezezagun hori sare sozial batean jarraitzen badute».

Era berean, gatazkak nola prozesatzen dituzten aipatzen dute adituek, eta diotenez, «bihurrikeria txikiak» balira bezala hartzen dituzte. «Askotan ez dira gai euren ekintzek izan ditzaketan ondorioak, eta beste pertsona batzuen aurkako hitzak eta arriskuak ikusteko».

Deigarria da etxe bakoitzaren errenta ekonomikoaren arabera errealitate ezberdinak atzematea. «Ikusi dugu baliabide gehiagoko familietan denbora gehiago ematen dutela etxean, eta Lehen Hezkuntzan kontrolatuko dituztela seme-alabak. Baliabide gutxiko etxeetan, lan piloarekin, ezin diozu agian heziketa digitalari hainbeste denbora eskaini, eta batzuetan ez dituzte gurasoen kontrola bezalako tresnak ezagutzen», esplikatu du Linazasorok.

%40K 2 ETA 5 ORDU ARTEAN

Smartphonearen eta sare sozialen erabilera inon orokortuta badago DBHn da. 13 eta 17 urte bitarteko kolektibo horretan telefonorik edo sare sozialik ez daukan gaztea «taldetik kanpo geratzeko benetako arriskuan» dago, txostenaren arabera, eta adin tarte horre-



Haurrek eta nerabeek erabiltzen dituzten zenbait joko 18 urtetik gorakoentzat dira. Iñigo URIZ | FOKU



tan, nahiko orokortuta dago, era berean, pantailak denbora luzeegian erabiltzea. DBHko 2.100 ikasleren artean eskola orduetatik kanpo pantailen

aurrean ematen duten denboraz egindako inkesta baten arabera: nerabeen %40,7 bi eta bost ordu bitartean egoten dira konektatuta, %22 zero eta bi

Haur bat smartphonearen aurrean, bere burua grabatzen. Sareetan kontrolik gabe mugitzen diren irudi horietaz ohartarazten dute adituek.
Iñigo URIZ | FOKU

AHOLKU BEREZI BAT, GURASOEN ETA IKASTETXEETAKO WHATSAPP TALDEENTZAT

Aplikazioen eta jokoan adin gomendagarriak errespetatzea eta pantaila aurrean ematen den denborari mugak jartzea bezalako gomendioen artean, mundu digitalaz «maiz hitz egitea» da adituek familiei egiten dieten eskaeretako bat, erabilera kontzientea bereizteko, arriskuez hitz egiteko... baina bada pribatutasunaren babesaren inguruan egiten duten dei berezi bat, helduen arriskuen pertzepzioa ere nahiko lausotuta agertzen dela ikusita.

Unicef-en 2021eko txosten baten emaitzak ekarri ditu gogora Macsonrisas-ek, kalkulatzen baita adingabeen %20k kontaktua dutela pederastekin. Horrelako hurbilketak detektatu dituztela diote azken txostenean, baina ezin dituztela kuantifikatu zehaztu dute. Pribatutasuna babesteko ezarpenak egitea da gurasoentzako lehen gomendioa, baina

gurasoen Whatsappeko taldeetan partekatzen diren argazki horiei erreparatzea planteatu dute. Ikastetxeko ekitaldietan familiek egiten dituzten argazki horiek arin partekatzen ohi dira, «noraino hel daitezkeen kontuan hartu gabe». «Argazkiak txat batetik bestera ibiltzen dira eta azkenean ez dakizu nork ikusi dituen eta argazki horiekin zer egiten duen, kontrola galtzen da», azaldu dio GAUR8ri Julen Linazasorok. Argazki horiek pederasta baten eskuetan eror daitezkeela dio, baina horrez gain irudiek ematen duten informazioari erreparatzea eskatzen du. Sexu abusuen gorakada aipatu du, baita erasotzailea gertukoaren artean egon daitekeela kontuan hartzea ere. Gomendioa da argazkiak ikastetxeak argitaratzea eta webgunerako sarbidea pasahitzekin egitea.

ordu artean, eta %12, zortzi ordu baino gehiago.

Demaseko erabilera horretan, denboraren nozioaren galera aipatzen dute adituek, eta erantsen dute askok onartzen dutela ez direla erabilera denbora murrizteko gai. Estatuko Pediatria Elkarteak konfinamendurako emandako aholkua erreferentzia modura hartzen badugu, egunean gehienez bi ordu gomendatzen da 6 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabeentzat.

Beste gai kezkarri bat kontuen babesa da. Txikienen artean kontuen babesa ohikoa ez den bezala, gazteen artean ere oso gutxi babesten dutela dio txostenak, baina kezka nagusietako bat pornografiaren kontsumoarekin, eta batez ere «sexting» delakoarekin lotuta dago.

Izan ere, «ikasturte bereko adingabeen arteko eta ikasturte desberdinetako adingabeen arteko 'sextorsio' kasuak» ikusten dituztela diote Macsonrisaseko hezitzaileek, baita Google Drive eta Dropbox bezalako zerbitzuetan «pertsone baten argazki edo bideo erotiko/sentsualen multzoak» diren 'pack'-ak maieztatzen dituztela ere.

Izaera sexualeko edukien harira eta jazarpen digitalaren inguruan ikusten dituzten kasu ugarien harira egon daitezkeen delituez ohartarazten dute adituek. Azken txosten honetan berretsi dutenez, «ez dakite legea Interneten ere aplikatzen dela, eta egunero egiten dituzten ekintza asko delituak direla». Egiten dutenak ondorioz izango ez delako uste faltsua dago.

«Kontuan izan behar dugu, adin txikikoen argazki sexualak izatea haur pornografia edukitzea dela, argazkiak edo bideoak partekatzea haur pornografia banatzea dela... oso delitu serioak dira. Gazteek ez

dituzte gauza horiek kontuan izaten, baina oso arriskutsuak izateaz gain, delitua izan daiteke», azpimarratu du Julen Linazasorok.

ONLINE DONAZIOAK

DBHko ikasleen artean adikzio ezberdinetan erortzeko arriskua ikusten dute hezitzaileek, baina azkenaldian nahiko hedatu den online donazioen fenomeno berriaren inguruan ohartarazi nahi izan dute. Modan omen dagoen praktika zabal da gustuko *streamer*ari dohaintza ekonomikoak egitea euren lanean laguntzeko. Macsonrisaseko hezitzaileek ikusi dute batzuetan lehia egiten dela gazteen artean, nork eman gehiago ikusteko, eta «askok duten diru guztia jartzen dute horretan», erantsi du Linazasorok.

Kasu horietan, *streamer*aren eskertza publikoki jasotzeak edo gaia zuzenean jorratzeak bultzatzen ditu gazteak horretara. Txostenak dioenez, diru kopuru txikiak izango dira agian, baina ikusten hasi da *streamer* milioidunek diru sarrierarik ez duten nerabeen donazioak jasotzea.

Gai horren harira, Antonio Molina Fromm Ongizatea proiektuaren sortzailearen gogoeta dakar txostenak. Hain zuzen, halako dohaintzen arrazoiak lotura izango luke «nolabaiteko autoritatea duen 'streamer' edo 'influencer' batek» euren garrantzia emateko beharrezkin, batzuetan «eguneroko bizitzan erreferenterik ez izateak edo haienganako emozio urruntasunak bultzatuta». Horregatik dio emaila publikoki aipatzeak beste milaka pertsonaren aurretik lehentasuna ematea bezala interpretatzen dutela gazteek.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Izarretako gerrarako prestatzen

arkitektura / zientzia / sexistentziak

3 BEGIRADA:

Negu hotza Lur planetako ipar hemisferiora heltzen ari zaigun heinean, are eta ozenagoak dira guda danbor hotzak.

Albisteak propagandaz beteta datozkigu eta batek ezin du jada pelikula argi ikusi. "DART" espazio ontziak Lurra mehatxatzen zuen asteroide baten aurka jo eta NASAk gizateria (berriz) salbatu du, pelikula hartan bezala. Egiari zor, nire belarrietan «Darth» entzun dut eta atoan "Star Wars" film sortako musika gogoangarria etorri zait burura, belarri artera, inperioaren martxa danbeka. Izan ere, inperioa kontraeraso betean da eskuetatik alde egiten ari zaion energiaren, baliabideen eta espazioaren kontrolaren bila, eta hala koetan, normalena izaten da bertako herritarrak propagandaz bonbardatzea: onenak gara, bikainenak, sistemarik libreenean bizi gara, deabruak infernu gorrikoak dira, eta ez kezatu, bada-eta okerrago bizi denik!

Matraka horren erakusle ona da kosmosaren ezagutza. Armstron estatubatuarrak Ilargia zapaldu zuela "zuzenean" ikusi genuen bezala, NASAren ekintza askotarikoekin estali izan dira beste herrialdeen aurrerapenak, eta azken urteak horren erakusle izan dira. Azken hamarkadan Txina izan da ziur aski protagonista nagusi meatzaritza estralurtarrean, baina azken boladan ez da inondik ageri. Dena hartu dute James Web teleskopioak (argazkiak ikusgarriak direnik ezin ukatu) eta Artemis proiektuak, zeinak modu agerikoan emakume eta "pertsonez-zuri" baina jarri nahi baititu Ilargian (estatu-batuarrak baitira emakume eta pertsona arrazializatuen eskubideen

erreferente nagusiak Lur planetan). Artemisek, baina, badu beste helburu bat: herrialdeen arteko akordioa erdiestea Ilargiaren gaineko ezagutza partekatua izan dadin (edo hobeto esan, beste herrialdeen aurkikuntzak bere egiteko). Errusiak eta Txinak ez dute akordioa sinatu, Nazio Batuetan kokatuz akordioetarako markoa, eta nabarmen aurreratzen ari dira gure satelitean mineralak eta ura aurkitzen. Ilargiaren kontrola dago jokoan antza, baina hori beste pelikula bat da...

Bitartean, kosmosaren ezagutzarekin loturiko berri garrantzitsu bi izan ditugu hil honetan. Batetik, misio bakarrean espazioan denbora gehien eman duen gizakia hil berri dela: Valery Poliakov kosmonauta errusiarra. Eta bestea, gure inguruko izarren sistemetan planeta urdu-

nak oso ugariak direla frogatu dela. Planeta bizigarrien bila ari gara sutuki, oraino gure planetatik alde egiteko teknologia oso urrun egon arren. Are gehiago, ikastetxeetan dagoeneko Eguzki Sistema ez da Natura arloan jorratzen, Gizarten baidik. Badaude herriak, herrialdeak, kontinenteak, planetak, sistemak eta galaxiak.

Errealitate naturala politiko bilakatzeko norabidean prestatzen ari gara dirudi, izarren arteko gizateriarantz eramaten iruditegia, baina oraindik errazagoa zaigu planeta hau akabatzea beste batera bidaitzea baino. Ea asteburu honetako Ekotopaketek bide ematen duten Lur planeta bera bizigarri egiteko, inperioari amaiera emateko, edo bederen, heldu den negua hain hotza ez izateko! Indarra zuekin izan bedi! •



Valery Poliakov kosmonauta errusiarra. GAUB

{ koaderno } **Itzea Urkizu Arsuaga**

Hitz batzuk absurdoari

Urtean behin elkartzen gara bazkaltzeko, eta txor-txor pasatzen ditugu orduak. Denborarik joan izan ez balitz bezala, baina, aldi berean, denbora horri buruz etengabe hizketan. Absurdo bat, akaso. Duela pare bat aste-buru izan zen azken hitzordua. Zer moduz, aspaldiko, X beranduxeago dator, ez nekien zer jantzi, botea jarriko dugu. Dena zegoela bere tokian, alegia: larunbat eguerdia, uda-hondarreko eguzki gozoa, gure herriko erdialdean dagoen terraza irrikatuenetakoa eta ardo zuri hotza. Eta, atmosfera horren gainean laino ikusezin bat sortu izan balitz bezala, arnasten zen halako poz bat.

Bazkari horretatik aparteko egunetan gertu-gertuko zirkulukoak ez izanagatik, aspaldiko lagunekin edozeri buruz aritzeko askatasun horrek sortzen duen poza. Beharbada, egun horrek ematen digulako aukera bat haurtzaro-nerabezaroan gorpuztu genuen rol hura berriz soinean janzteko eta, ondorioz, orain daramaguna pixka batean erantzeko. Txikitako lagunekin periodikoki elkartzea, badelako toki bat izatea zeinetara beti itzul gaitzkeen.

Eta, toki horretatik, hizpidera ekartzea gai arruntak eta serioak eta arinak eta urtero errepikatzen direnak. Otordurako aukeratu beharreko jakiak erabakitzen 25 minutu pasatzea eta, hala ere, proportzio eta hautuarekin bete-bete ez asmatzea. Aldameneko mahaikoen bazkari erromantikoa gure kontu-jatearekin zapuztea. Eta barre egitea, bes-teen bizi-zez eta geureaz.

Bazkalondoan izotzak perfekzioz txikituta eta menda-hostoak bere tokian jarrita zituen mojito bana eskatu genuen. Instagrameko edozein argitalpen galako janzteko aitzakia. Eta, halako batean, parabola perfektu bat marraztuaz bezala, lagune-

tako bati edalontzia erori zitzaion, saihestu ezin-eko indar fisikoen dantzan.

Ni eserita nengoen toki pribilegiatutik, istripua- ren bide-orria begiradarekin jarraitzeko aukera izan nuen: nola mugitu zuen eskua; nola igurtzi zuen mojitoa esku-mugimenduak; nola amildu zen mahaira, baxera-pieza eder haren barruko likido eta solido guztia, poliki baina ezinbestean. Nola pentsatzen dudana, halakoetan, nahiko nukeela fisika kuantikoaren inguruko ezagutzaren bat izan, ezbehar txoroak ekiditeko edo ezabatzeko. Absurdo bat, akaso. Horrelako egoeretan sortzen den barreraren antzera; katastrofearen erdian poza ukitzeko behar absurdoa.

Ez dut uste berriki gurean gertatu dena mojito bat erortzearen zalapartarekin aldera litekeenik; ezta fisikak konpon lezakeenik ere. Baina, bi urteko semeak aitari «hori ez da saxofoilaria, hori nes-


Aspaldiko lagunekin elkartzeak ematen digu aukera bat haurtzaro-nerabezaroan gorpuztu genuen rol hura berriz soinean janzteko eta, ondorioz, orain daramaguna pixka batean erantzeko

ka da» esaten entzutea katastrofe txiki bat izan da gure unibertso propioan; kolpea erraietara. Non eta hemen, munduak haurrari erakusten diona beste nolabait irakurtzeko saiakerak bata bestea- ren atzetik kateatzen dihardugun etxeetako batean. Askori absurdo bat irudituko zaio nire kezka, eta berdin zait. Jarraituko dugu inon idatzi gabeko indar fisikoen dantza-pausoak aldatzen, eta orain arte halabeharrez erori izan diren edalontzi horiei guztiei eusten. Nahikoa absurdoak bagara-eta, bes- tela ere. •

infraganti

LUIX ALBERDI «BELTZA»

Aurtengo ikasturtean 40 urte beteko dira Luix Alberdi (Azkoitia, 1966) dantza erakusten hasi zenetik. Denbora horretan ehunka dantzari igaro dira bere eskuetatik eta euskal dantzen erreferentzia nagusi bilakatu da, batez ere dantza sueltoko txapelketei dagokienez. Errepaso ederra eman diogu bere ibilbideari eta txapelketen bilakaerari.



Luix Alberdi, Urola ibaiaren aldameneko pasealekuan. Gorka RUBIO | FOKU

Azpeiti inguruan dantza aipatuz gero, jendeari segituan etorriko zaio burura Luix Alberdiren izena, ezizenez *Beltza*. Eta alderantziz: Luix Alberdiren izena aitatuz gero, dantza kontuak irtengo dira berehala. Ez da harritzekoa, aurtengo ikasturtean 40 urte beteko baititu dantza irakasten hasi zenetik. Baina Azpeitian bakarrik ez, Euskal Herri mailan ere dantzak duen erreferente nagusietako bat da Luix, batez ere dantza txapel-

ketei dagokienez. 30 urte baino gehiagoan dantzaria izana, ehunka haur eta gazte prestatu izan ditu lehiaketetara begira, eta gaur egun ere txapelketetan parte hartzen duten bikote gehienak bere eskolakoak izaten dira.

Ikasturtea martxan jarri berritan egin dugu hitzordua Luixekin Azpeitiko Sanagustin kulturgunean. Ederki ezagutzen dute bertan eta, lanpetuta egon arren, tarte bat hartu du gurekin egoteko. «Ikastaroei dagokienez, badirudi kurtsoa ongi hasi dela, baina oraindik ikusi egin beharko da. Hasi be-

rriak gara, irail hasieran, eta ume asko apuntatu diren arren, badakizu zer gertatzen den: askotan haurrak lagunekin apuntatzen dira, batzuk benetan dantza gustatzen zaielako baina beste batzuk lagunak apuntatu direlako. Horregatik, iraila apur bat jendearen joera ikusteko hilabetea izaten da. Badago jendea hasi eta gutxira uzten duena, ikusten duelako gogorra dela edo ez dela beraiek pentsatzen zutena», aipatu digu.

Askotariko ikasleekin egiten du lan Alberdik, eta horrek klase desberdinak proposatzera eramandu azken urte hauetan. «Bost urtetik aurrerako haurrak hartzen ditut. Dudan ikasle gazteenak, adibidez, 5 urte ditu eta dudan zaharrenek 78, Ikasberri ikastolako guraso talde batekin ere ibiltzen naizelako. Umeak batez ere txapelketara begira prestatuz hasi nintzen hasieran, baina konturatu nintzen beti fandangoa eta arin-arina dantzatzeko ikasleei luze egiten zitzaizela. Horregatik hasi nintzen beste dantza mota batzuk irakasten. Horrek eskaintza asko zabaltzen du eta jendea gusturago etortzen da. Koreografia berriak egiten ditugu. Gaur egun jada ez dira garai bateko dantzak berdin egiten. Arku dantzak, ezpata dantzak.. gaur egun fusioak egiten ditugu gehiago».

Edonola ere, uda garaia –eta iraila bereziki– oso potentea izaten da dantza txapelketen munduan eta horregatik atsedena neguan izaten dute hor dabilzanek. «Maiatzaren 1ean hasten dira txapelketak Lazkao festetan eta San Tomas egunean bukatu. Amaitutakotan oporraldi txiki bat hartzen dugu sansebastianak pasatu arte, eta gero hasten gara be-

rriz, bai taldekako dantzekin eta bai txapelketakoeekin».

MALTZETA AITA-ALABAK

Txiki-txikitatik hasi zen dantzan Luix Alberdi, familiak Sanjuandegin duen Ongi-Etorri jatetxean. Familiatik zetorkion zaletasuna –«nire izebak dantzariak izandakoak dira, aita eta ama erromerietan dantzan aritzen ziren, baina izebak txapelketetan ere bai», gogoratu du– eta bera ez zen atzean gelditu. «Jatetxera kuadrillak etortzen ziren afaltzera, eta Martittekoin soinu-jole denak etortzen ziren. Trikiti zaletasun handia zegoen inguru horretan. Ezkontzetatik zetorren jendea ere bai... Eta jendeak dantza egiten zuen. Nik 5 edo 6 urte izango nituen, ez nekien dantzan, baina kuadrillan sartzen nintzen eta hantxe ikasi nuen dantzan, jendeari begiratu».

Haur txiki hark azkar erakarriz zuen inguruko arreta: «Egun batean soinu-jole batzuk etorri zitzaizkidan, Maltzeta aita-alabak, Juanito eta Mari Carmen Garate. Zerbait ikusiko zidaten eta galdetu zidaten ea dantzan ikasi nahi nuen. Nik baietz, eta orduan Maltzeta etortzen zen astean bi aldiz eta bere alabarekin joaten nintzen Osintxura Juantxo Urbietarekin ikastera».

Txapelketak ere berehala agertu ziren Luixen bizitzan, garai hartan logikotzat jotzen zen urratsa eginez. «Osintxun ordu bat egiten genuen eta gero Sorraluzera joaten ginen. Horrela, bi urte egin nituen txapelketa prestatzeko. Ni berez dantzan ikastera joan nintzen, baina jendea txapelketak prestatzera joaten zen. Gustatu egin zitzaidan eta horrelaxe hasi nintzen. Eta lehen aldiz txapelketa batean 8 urterekin

hartu nuen parte. Hamalau urtera arte Mari Carmenekin osatu nuen bikotea, baina gero Hondarribira joan zen bizitzera», oroitu du.

Dantzari ibilbide luze baten hasiera, bere bizitzaren zati handi bat hartu duena. «Zortzi urterekin hasi nintzen txapelketetan parte hartzen eta erabat utzi 40 urterekin. Urte asko izan ziren. Noski, orain ere txapelketetan sartuta nabil, baina ikasleekin. Erakustaldiren bat egiten dut Ikasberriko gurasoekin, mutxikoekin ere igandero egiten dugu dantza, Argentinako Necochea hirian ere izan ginen orain dela zazpi urte bertako Euskal Jaian...».

SUKALDEAN HASI ZEN DENA

Baina seguruenik Luix Alberdi ezagun egin duena bere irakasle lana izan da, eta horretan ere oso goiz hasi zen azkoi-tiarra. «Hamalau bat urterekin hasi nintzen irakasle, bi neskekin tabernako sukaldean. Misericordian ikasten zuten eta eskolak Gabonetan antolatu zuen jaialdian fandangoa eta arin-arina dantzatu zuten. Jendea galdezka hasi zitzairen, ea non ikasi zuten, eta Luix Beltzarekin jardun zirela kontatu zioten jendeari. Orduan, beste guraso batzuk etorri zitzaizkidan beren seme-alabei erakutsiko ote nien galdezka, baina nik ez neukan lekurik horretarako. Eta tabernako biltegian hasi nintzen zortzi-hamar bat ikaslerekin. Misericordiako jaialdirako koreografia bat egin genuen, eta hori ikusita oraindik eta jende gehiago etorri zen. Eta azkenean lokal bat hartu behar izan nuen».

Bere jarduna txapelketetara bideratzeak ere lehen urte haietan du jatorria. «Orduan Azpeitian bazeuden bi dantza talde, Itsasi eta Sahatsa, euskal



Alberdi, Azpeitiko kaleetan Nafarroako Banderarekin, bere ikasle helduenak atzetik dituela. Luix ALBERDI



Gazteen Dantza Txapelketan, sari banaketaren ondoren. Luix ALBERDI


Familiak Sanjuandegin duen Ongi-Etorri jatetxean eman zituen lehen pausoak dantzari moduan, baita irakasle gisa ere, sukaldean bi neskari klaseak emanez

Gero eta jende gehiago gerturatzen hasi zitzaion eta lokal bat hartu behar izan zuen. Hasiera hartan fandangoa eta arin-arina bakarrik erakustea erabaki zuen

dantzak erakusten zituztenak, eta ni ere Sahatsan ibiltzen nintzen dantzan, horregatik erabaki nuen fandangoa eta arin-arina bakarrik erakusten hastea, ez besterik. Gero eta jende gehiago apuntatzen joan zen, eta une bat iritsi zen, non niretzat bakarrik lan gehiegi zen. Orduan, arreba eta biok hasi ginen irakasle moduan. Nire arreba ere dantzaria zen, baina lesio bat eduki zuen 18 urterekin eta utzi beharra izan zuen».

Gaur egun ere, txapelketei begira egiten du lan Luix Bel-

tzak, eta metodologia oso konkretu bat erabiltzen du, taldeko dantzak eta txapelketara bideratutakoak desberdinduz. «Hurrekin lanean hasten naitenean hasieran garrantzi handia ematen diot fandangoa eta arin-arina ikasteari. Azkenean, nire lehen helburua txapelketetarako bikoteak prestatzea da. Astean bi aldiz etortzen dira eta fandango eta arin-arinarekin batera aurrerakua ikasten dugu, baita arrantzale eta makil txiki ere, apur bat jolas moduan. Eta prozesu horretan ikusten joaten naiz



Ezkerrean, «Beltza»-ren beste argazki bat. Eskuinean, bere ikasleek egindako bi emanaldi desberdin: goikoa plazan eta behekoa Soreasu antzokian.

Gora RUBIO | FOKU - Luix ALBERDI

nork daukan markaje ona, punta onak, erraztasuna... Baina horrekin batera oso garrantzitsua da belarri ona izatea doinuari jarraitzeko, erritmoa jarraitzeko. Eta ikusten badut ikasleren batek gaitasun berezia duela, orduan aparte hartzen dut astean beste egun pare batean. Taldean 30 bat haur badabilta, nik aparte hiru neska eta hiru mutil hartzen ditut gutxi gorabehera, edo lau eta lau. Gehiago ez. Horrek jada dedikazio gehiago eskatzen du eta ez dauka zerikusirik taldean egiten dugunarekin. Nik hori denei argi esaten diet: 'Gogorra da eta proba egingo dugu, gero zuek ikusiko duzue jarraitu ala ez'».

Askotan entzun behar izaten du oso irakasle zorrotza dela, eta ez du ukatzen, baina hori ere bere neurrian jartzen du. «Agian jendea gaur egun ez dago ohituta horretara, ni hasi nintzenean orduko haurrek beste modu bateko jokaera zeukaten. Gaur egun jendea zorrotasun horrekin apur bat

beldurtu ere egiten da agian. Askotan gertatzen dena da musikarekin dantzan ari garenean eta nik pausoak esplikatzekeo zerbait esan behar dudanean ozen hitz egiten dudala, musikaren gainetik nire ahotza entzuteko. Eta horrekin 5-6-7 urterekin hasten diren haurrak apur bat harrিতuta geratzen dira. Nik beti esaten diet, ez nagoela haserre, baizik eta musikaren gainetik azalpenak eman behar ditudala».

Agian horregatik, Luixek dio guraso asko harrিতuta geratzen direla beren seme-alabak emandietan ikusten dituztenean. «Harrিতuta geratzen dira 5-6 urterekin hasten direnean haurrak nola joaten diren ilaran zuzen-zuzen. Niretzako dantza hori da. Ez da astean behin etorri eta eskolaz kanpoko jarduera bat bezala, kaxkotx artean, gurasoak libre egoteko umea ordu bat Luixekin uztea. Hau ez da haurtzaindegi bat, dantza eskola bat da. Haurtzaindegiak badaude, parkeak ere bai jolase-

rako. Nik gurasoei beti esaten diet: hona dantza egitera etorriko dira. Eta asko harrিতuta geratzen dira lehen urtean zenbat dantza ikasten dituzten. Zorrotza naiz, baina umeekin jolas ere egiten dut».

EXIJENTZIA... ETA GAINBEHERA

Izan ere, txapelketek badute taldekako dantzek ez duten exigentzia maila bat, zentzu guztietan. «Horretarako ez du edonork balio. Hor urduritasunak hasten dira, egonezinak... Txapelketan oholtza gainean bi pertsona daude, eta jende mordo zuri begira. Eta epaitu

egingo zaituzte, epaimahai bat dago. Taldekakoan, aldiz, dantzan zortzi, hamasei edo hogei pertsona ari dira batera. Horrek babesa eskaintzen du eta jendea askotan ez da konturatzeko akats bat eginda ere. Baina txapelketan begi denak zure gainean jarrita daude. Bederatzi bat urterekin hasten dira normalean haurrak txapelketetan parte hartzen, eta nik beti diot horretarako balio egin behar dela. Askok utzi egiten dute suposatzen duen presio horregatik. Txapelketak uzten dituzte, baina taldean jarraitu egiten dute dantzan».

Ordu asko sartu, lan asko egin. Ez dago beste errezetarik Luixek behin eta berriz errepikatzen duenez, eta horretan ez du barkatzen, besteak beste, bikoteari zor zaion begiruneagatik. «Bost edo sei urteko haurrekin ez zara hasiko gogorrean, baina behin txapelketetara bideratzeko erabakia hartzen duzunean bai egin behar da lan gogor. Ikusten baduzu norbait gogo gutxirekin dabi-

«Gure garaian oroitzen naiz 25 edo 30 bikote ibiltzen ginela txapelketetan dantzan. Herri askotatik irteten ziren dantzariak», gogoratu du, gaur egungo egoerarekin kezkatuta

«Uste dut bilera batzuk egin behar direla txapelketen mundua birpentsatzeko», dio, joera aldatzen ez bada txapelketak desagertzeko arriskua ikusten duela gaineratuz

lela hobe da argi hitz egin, gurasoekin bilera bat egin, eta beste bide bat hartu behar dela onartu. Azkenean bikoteko kide bat gogor ari bada lanean eta bestea denbora-pasa bada bil, lanean dabilenari beste bikote bat aurkitzen saiatzen zara. Eta hori esandakoan batzuek begiak zabaltzen dituzte. Eta egon da kasuren bat orduan lanean hasi eta sekulako aurrerapena egin duena».

Agian eskaini behar zaion esfortzu eta denbora horregatik, gero eta bikote gutxiagok hartzen dute parte dantza txapelketetan. «Gure garaian oroitzen naiz 25 edo 30 bikote ibiltzen ginela dantzan. Herri askotatik irteten ziren dantzariak. Osintxutik bertatik, Bergararik, Zarauzko bikotea ere bazegoen, Hernani, Lezo, Donostia... eta Azkoitia eta Azpeitia ere bai noski. Gaur egun Bergara, Lezo, Andoain, Oiartzun eta Azpeitia bakarrik ibiltzen gara. Eta Bizkaikoren bat, baina oso gutxi. Galtzen joan da. Gaur egun Lezok eta Azpeitiak segitzen dute fuerte, eta Bergararik bikote bat, Bizkaitik pare bat...», dio kezkatuta.

«Hamasei urtetik behera txikiena egiten da, eta 16 urtetik gora helduena. Eta noski, behin adin batetik aurrera ikasketak direla, unibertsitatea dela... Gaur egun jendeak gehiago irteten du kanpora ikastera, eta horrek ere izan du zerikusia. Lehen jendea agian Donostian geratuko zen, edo Gasteizen, Bilbon, Arrasaten... gertu. Baina gaur egunean jendea urrunera joaten da; Barzelonara edo Ingalaterrara edo Erasmusera. Hor bikoteak banandu egiten dira, nahiz eta gero itzuli. Eta ez baduzu entseatzeko zaila da txapelketetan irtetea. Hiru-lau egingo dituzu agian, baina ez denak».

Txapelketak desagertzeko arriskua ere ikusten du Luix Alberdik, eta hausnarketa sakon bat egin beharko litzatekeela uste du egoera bideratzen saiatzeko. «Asko aldatu da dantza mundua. Epaimahaia Euskal Dantzari Biltzarrekoa izaten da eta uste dut hor aldatuta txiki bat egin beharra dagoela dantzak aurrera jarraitzea nahi baldin badugu. Ez bada hori aldatzen, hemendik urte gutxira dantza txapelketak desagertzeko arriskua ikusten dut. Uste dut bilera batzuk egin behar direla, txapelketen mundua birpentsatzeko. Gaur egun, azpeitiarrak ez bada txapelketa batera joaten txapelketa hori ez da egingo. Zortzi bikote aurkezten badira bost edo sei azpeitiarrak dira», gaineratu du.

DANTZA BALIOAN JARRI

Edonola ere, lanean jarraitzeko prest dira Azpeitian eta dantza balioan jartzen lagunduko duten bide berriak irekitzeko prest. Adibidez, dantza ikastetxeetara gerturatzea, haurrentzat dituen onurak baliatzeko. «Aurten hasiko gara dantza eskoletan sartzen soinketa bezala. Noizean behin soinketa orduan dantza pauso batzuk. Kirola da, ehun metro, esprinta. Sendagileek esaten dute dantza dela oinak zuzentzeko dagoen terapiarik onena. Haur asko etortzen dira oin zapal, oin kurbatu eta antzekoekin. Horretarako sekulako terapia da. Baita koordinazioa lantzeko ere. Haur txikiekin ezkerre eta eskuina identifikatzen laguntzeko, edo adin bateko jendearekin hanka-esku-buru koordinazioa lantzeko. Medikuek bidaltzen dituzte haurrak dantzararako hankak zuzentzeko», aldarrikatu du Alberdik.




Alberdi, bere ikasleekin emanaldi baterako prestatzen. Luix ALBERDI


Eta, gainera, dantza ikastetxeetan lantzeak historikoki izan den mutil falta gutxitzen lagundu lezake Alberdiren ustez: «Mutil gutxi apuntatzen dira dantzarara. Neskentzako soilik den zerbait bezala ikusten da oraindik ere. Eskoletan oraindik ikusten dira burlak, mutil bat dantzan hasten denean besteek hori nesken kontua dela esanez. Noski, batzuek jarraitu egiten dute, baina beste zenbaitek utzi egiten dute besteek zer esango ote duten kezka horregatik. Ea ikastetxeetan neska-mutilekin egingo den lanak aukera ematen duen dantza hobeto ezagutzeko».

Hori dena bere dantza eskolaren 40. urteurreneko ekitaldiak prestatzen dituen bitartean. Maiatz aldera dantzari txiki egun bat antolatzeke asmotan dabil, esaterako, horrek eskatzen duen lan guztiarekin. Argi dagoena da Luix Beltza ez dagoela geldirik egoteko eta dantzarekiko bere pasioak bizi-bizirik jarraitzen duela. •

Asier Aiestaran



Zuriz jantzita, dantzarako prest. Luix ALBERDI



GAUR8 *ireki gure leihoa*

Lehen euri tanta naiz

**Maidor lantzi
Goienetxe**

Luze itxarondako lehen euri tanta naiz, haur baten eskutxoan sartu dena. Zarra-zarra hedatzen naiz, umea beso zabalik dantzan ari dela, lorategi egarratuan barna. Eguzkiarekin kukuka, ortzadarra naiz, zerura begiratzen duenarentzat behintzat.

Hotza naiz, iluna. Lepoko uzkurdua eta bihotzeko ziztada. Hutsa, barrurako deia, be-roaren ametsa. «Negua ez da urrun» igartzun duzun une zehatz horixe. Urtero sentitzen duzu eta ez dakizu gustatzen zaizun ala ez. Ekaitzekin antzeko zerbait gertatzen zaizu: maite dituzu baina beldur puntua ematen dizute, trumoiak baino gehiago tximistek. Trumoiak zakur zaunkariak dira, tximistak auskilariak. Trumoiak belarriak estali

gabe entzun ditzakezu, baina tximistekin begiak ixten zaizkizu, automatikoki.

Grisa naiz, lainoa, esna egiten den loa. «Egunero argitzen du egunak» errana egia ez den froga. Pisua eta batez ere karga. Nahi eta ezina, eta ondoriozko haserrea. Tristuraren gordelekua.

Badira hasi beharko ez luketen egunak, lehenbailehen amaitzeko desioa baino ekartzun ez dizutenak, «bihar bertze egun bat izanen da» esperantzari helduta.

Hori ere banaiz, esperantza: eguzkia, argia, goxotasuna, poza, isiltasuna eta musika. Gauzak bere lekuan dauden momentuak: garrantzitsuak alde batean eta huskeriak bertzean. Lasaitasuna, arintasuna, inspirazioa. Eta inspiratzen

zaituzten pertsonak ikustea. Motiborik gabe eskapatzen zaizun irria. Zure sua.

Opor sentsazioa: paseo bat bizikletan, ordua atzentzea, lurrean egotea, jostatzea, benetako elkarrizketa bat.

Egunerokoa naiz eta, aldi berean, miraria. Beti ezberdina. Hain zuzen ere, egunerokoa izateagatik ez naute mirarizat hartzen, ez dituzte izaten ditudan aldaketa guztiak sumatzen, ez naute bete-bete gozatzen. Inor bizi daiteke etengabe harritzen? Eta, hala ere, eskue-tan sartu zaizun euriak badu magia, busti zintuen lehen tanta hartatik munduak hamaika buelta eman dituen arren.

Aurrerabidea baino, itzulera naiz. •

Statkraft vs GHK

**Xabier Mikel
Errekondo**

Ni ez naiz fio enpresa honetaz, eta horretarako nahikoa dut datu objektiboari erreparatzea. Publikoa dela-eta politikariak bendizio guztiak eman dizkiote norvegiar enpresa erraldoiari eta nik ez dut ongi ulertzen alderdien halako harrera bigun eta abegitsua; esaterako, non da bermeen eskari zerrenda? Izan ere, erakunde publikoa izatea tresna bat baino ez da eta ez ditu bermatzen oinarritzko politika sozialak, ez ingurumenaren zaintza, ez ekonomia solidarioa, ezta energia berriztagarriak ere. Nago erakunde publikoenak parlamentuak eta udalak direla, herritarron parte-hartze zuzenetik osatuak. Bada, GHK Gipuz-

koako hondakinak kudeatzeko lurraldeko administrazioek, GFA buru, eraturako elkarte publikoa da baina gipuzkoarron osasuna kaltetzen duen erraustegia ezarri egin du inolako “aizolan” edo parte-hartze sozialik gabe, martxan jarri eta kito.

Erkidegokoak ez dira lehenak, 2020tik hainbat proiektu galant bul-tzatzen ditu Statkraftek Galizian zein Katalunian. Ingurumenarekin errespetuz aritzea al da Galiziakoan babestutako lurri eragitea? Edo tokiko gizartearen alde egitea al da Generalitatea zorrotz ari delako proiektuak elkartzea 50 MW gairatutako eta Madriletik bideratzea? Prezio merkeak izango dira

guztiontzat ala Iberdrolak eskaintzen duen eran “bonu sozialak”? Pobrezia energetikoari zer aterabide? Honetaz guztiaz zer exijitu diote txalotu duten alderdiek? Burujabetza energetiko-rantz urratsa izango da ala mendekotasunean iltzatzea?

Nago ia 100 milioi euro inbertituko duen enpresa batek kudeaketaren kontrola beste inoren esku uzteko ez duela izango inolako asmorik, eta politika sozial eta berdea axalekoa baino ez duela eskainiko.

Nahiago nuke oker banengo, gustura irentsiko nituzke ene hitz hauek. Berri Txarrak-ek abesten duen bezala, «denbora da poligrafo bakarra...». •

URTE BAT METAREKIN

Urriaren 28an beteko da urtea Facebook sare sozialak izena aldatu zuenetik

TEKNOLOGIA / GAUR8

Zurru murru ugari entzun ondoren, 2021eko urriaren 28an Facebook izeneko sare sozialen multzoak Meta izena hartu zuen. Zuckerbergen eta bere konpainiaren ideia metabertsoaren buru izatea zen: maila berri bat telekomunikazioen aroan, non fisikoa eta digitala nahasten diren errealitate birtualeko eta errealitate areagotuko tresnei esker. Mundu mailako aurkezpen hartatik urtebetera, nola lurre-ratu da metabertsoa gure bizitzetan eta zertan aldatuko da gure etorkizuna?

APLIKAZIO PRAKTIKOAK

Metabertsoak eskaintzen duen aukera erakargarrietako bat konektibitate handiagoa da zentzu guztietan. Bideokonferentzia bidezko lan bilerak, adibidez, bete-betean sartu dira gure bizitzetan. «Laster egingo dira avatar eta hologramak nahastuz», iragarri du Jose Ramon Ubieto psikoanalista, Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako irakaslea.

Liliana Arroyorekin batera, «¿Bienvenido Metaverso? Presencia, cuerpo y avatares en la era digital» (Ongi etorri, metabertsoa? Presentzia, gorputza eta avatarek aro digitalean) liburuaren egilea da, eta bertan aipatzen dutenez laster ohikoa izango da kontzertuetara etxetik irten gabe joatea, edo musikariak euren bertsio holografikoekin ordezkatzeta. Internet bidezko ikastaroak edo hitzaldiak askoz murgiltzaileagoak izango dira, eta elkarreraginean jardun ahal izango dugu horretarako diseinatutako es-

Zuckerbergen eta bere konpainiaren ideia metabertsoaren buru izatea zen: maila berri bat telekomunikazioen aroan, non fisikoa eta digitala nahasten diren errealitate birtualeko eta errealitate areagotuko tresnei esker. Urtea igarota, garapen desberdina izan du aplikazio eremuaren arabera.



pazioko elementuekin (arbel digitalak, grafikoak, etab.). Decentraland-ek (metabertsora bideratutako plataforma birtualetako bat) lehen ezkontza birtuala antolatu zuen joan den otsailean, eta, beraz, espero daiteke gero eta ohikoagoak izango direla, baita «griefboten bidezko doluak ere, hildakoa barne hartzen duten txatekin», iragarri du Ubietok. Teleosasangintza, errealitate birtualeko eta errealitate areagotuko osagarrirei esker, askoz ere eraginkorragoa izango da. Terapia psikologikoei ere aplikatuko zaie, eta, jakina, hezkuntza bezalako eremu bati.

Badirudi erosketen arloa izango dela metabertsoa gure errealitatean azkarren integratuko duen sektoreetako bat. Pierre Bourdin UOCeko Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio Ikasketetako irakaslearen arabera, hau izango da metabertsoaren hornitzaileen negozio handienetako bat: «Hornitzaile bakoitza metabertsorako ate moduko bat da. Beraz, guztiek bilatuko dute erabiltzaileak, bezero potentzialak direnak, euren atetik sar daitezen, merkataritza guneekin gertatzen den bezala: asmoa da bezeroa supermerkatu doanean beste denda batzuetako erakusleihatik pasatzea». Hau da, hornitzaileak espazio birtualak saldu edo alokatu ahal izango dizkie beste enpresei, betiere merkataritza gunea erakargarria bada.

GIZARTE LOTUA ETA LUDIKOA

Baina erabilera praktikoan alde batera utzita, metabertsoa pertsonen arteko harremanak iraultzeko ere iritsi da. Sare sozialetan egiten denaren bilakaera da. «Gaur egun ikusten dugu egunero sortzen direla gure errealitatearen per-

tzepzioa zabaldu eta handitzen duten presentzia modu berriak (metabertsoa, adimen artifiziala, robotak, txipak, hologramak): bizitza erosoak, errazak, seguruak eta sorpresarik gabekoak agintzen dizkigute, gorputza ondo babestuta izatea ahalbidetzen digutenak. Espazio-denboraren mugak gainditzea ahalbidetzen digute, gure 3D burbuila digitalean murgiltzeko», adierazi du Ubietok. Sexuak, maitasun harremanek, jolasek eta entrenamendu fisikoak ere iraultza «figitala» biziko dute, arlo digitalaren eta fisikoaren nahasketa, alegia.

Paradoxikoki, fisikoaren eta digitalaren arteko mundu hibrido honen etorrerak presentzialaren garrantzia ere erakutsiko du, adituaren ustez: «Mundu 'figitalak' alde birtuala gehitzen du giza gorputzaren osagarri gisa —beste presentzia forma berri batzuekin batera, robotikarekin edo holografikoarekin, esaterako—. Hala ere, ez du ordezkaturiko, inork ez duelako metabertso batean bizi nahi; izan ere, musuen edo garagardoa-zen zaporea simulatu daiteke hor, baina ez daukagu gure gorputza horiek dastatzeko».

Errealitateari buruz dugun pertzepzioa handitu egingo da teknologia horiekin, «sozializazioari, nahi ez dugun bakardadearen kasuan konpainiari, ikaskuntzei eta entretenimenduari lagunduko baitiete». Hala ere, erabiltzaileek aurrez aurrekoa ere bilatuko dute mundu digitaleko topaketak konpentsatzeko. «Errealitate birtual hori handitzen den heinean, presentziaren balioak, beste batzuekin topo egiteak beti dakarren misterioarekin, asko irabaziko du», dio Ubietok. «Ikerketa batzuek



Lehen orrian, Mark Zuckerberg, Meta konpainiaren jabea. Goiko irudian, metabertsoak erosketak egiteko eskaintzen dituen aukeren ilustrazioa bat. Josh EDELSON | AFP PHOTO - GETTY IMAGES

erakusten dute digitalak errutina errazten duela eta presentzialak sormena bultzatzen duela, eta hori kontuan hartzea komeni da bideo konferentzia bidezko lan bileretan, adibidez», gaineratu du.

Jakina, B alde bat dago, eta hala azaltzen du Pierre Bourdinek: «Normalena da telebista ikusteko edo bideo jokoetan jokatzeko bizitzeari ez uztea, baina pertsona batzuek, une zailak igarotzen ari direlako edo aukerako eremu bat aurkitzen dutelako, beren bizitza errealetik aldentzen dituzten mendekotasunak gara ditzake-

te, eta muturreko kasuetan beren osotasun psikikoa eta fisikoa kaltetu dezakete, hala nola muturreko nekea edo depresioa sufrituz». «Batuetan, *posturo*oak narzismoa areagotzen du, errealitate digitala, bere agerpen guztietan, niaren benetako laborategia baita; baina norberaren *fake* bertsio jakin batek aukera pentsaezina eskaintzen dizkigu», gaineratu du Ubietok.

Pertsona lotsatiek edo gizarte trebetasunik gabekoek onura atera diezaioke harreman modu berri horri, baina «arazoa sortzen da birtualak pre-

sentzia ordezkaten duenean (osatu beharrean). Inork ez du zure osasun mentala zalan-tzan jartzen inauterietan mo-zorrotzen bazara; arazoa da zuk ez jakitea mozorroa dela. Haurrak beste pertsonaia batzuk bihurtzen dituzten jolasek, presentzialek nahiz birtualek, gai delikatuak tratatzen laguntzen diete (sinbolikoki), hala nola heriotza, sexualitatea, galerak edo frustrazioak», gogoratu du adituak.

ORAINDIK LUZE JO DEZAKE

Duela urtebete Mark Zuckerbergek errealitate berri hau aurkeztu zion munduari, baina oraindik bidea dago egiteko guztion bizitzetan integratu arte. Arrakala digitalek (geografikoak, generokoak eta sozioekonomikoak) edo errealitate birtualeko kaskoen edo betaurrekoen prezioak mundu hibrido honen etorrera urruntzen dutela dirudi.

«Ez dugu gutxietsi behar, ezta gehiegi estimatu ere», dio Bourdinek. Metabertsoaren eta haren erabileraren garrantzia testuinguruan jartzen du, tresna bat baino ez baita. «Ez dugu ahaztu behar mugikorra edo, askoz atzerago begiratu gero, gurpila bezalako tresna dela. Bai, gurpilik gabe ondo bizi zitekeen, baina gurpilaren asmakuntzak gizateriari eragin zion. Baina gurpilarekin egiten dena gizakien esku dago: gerra egiteko zein medikuntzarako erabiltzen da».

Mundu birtualak gure errealitate fisikotik aldentzea eragin dezake? «Gorputzasunak eta hizkuntzak dakarten presentzia ez da desagertuko; eta birtuala zenbat eta arruntagoa izan, orduan eta preziatuagoa izango da benetako», amaitu du Jose Ramon Ubietok.

Badirudi erosketen arloa dela metabertsoa gure errealitatean azkarren integratuko duen sektoreetako bat. Merkataritza gune birtualak fisikoen oso antzekoak dira

Sexuak, maitasun harremanek, jolasek eta entrenamendu fisikoak ere iraultza «figitala» biziko dutela dirudi; arlo digitalaren eta fisikoaren etengabeko nahasketa, alegia



Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Bisexualitatea



arkitektura / zientzia / **sexistentziak**

3 BEGIRADA:

Pasa den irailaren 23an izan zen **Bisexualitatearen Nazioarteko Eguna eta oihartzunaren indarra jarraitzea erabaki dut.** Batzuetan estrategikoa izan daiteke halako ikusgarritasunak aprobetxatzea eta zeresanak adierazteko erabiltzea. Hor doa.

Desiraren orientazio honek badu bitxitasun berezi bat: erdibidean egongo balitz bezala ikusten dute askok eta erdibideak ez ditugu erraz ulertzen. Horregatik, askok neurgailua ateratzeko beharra sentitzen dute eta gaia ulertu nahian (beste batzuk epaitzeko gogotsu) galdera mordoxkarekin hurbiltzen dira: baina zenbat neskarekin egon zara? Eta zenbat mutilekin? Bikote harremanak mutilekin bakarrik izan badituzu, horrek ez al du adierazten gehiago gustatzen zaizkizula? Bisexuala izanda txortan egiteko aukera gehiago, ezta? Ez zara lesbiana izango berez berez eta erreprimituta zaude? Ez al zara hetero kurioso izango eta listo?

Eta zu galdera hauen aurrean zer egin ez dakizula aurkitzen zara, pentsatuaz: eta nik zer dakit! Ez ditut kontuak eramaten. Ez dakit eraman behar ditudan ere. Gehiago eta gutxiago nola neurtu dezaket? Kantitatez? Intentsitatez? Alde bat edo bestea aukeratu behar dut? Erreprimituta nago? Eta mutilak gehiagotan gustatzen bazaizkit, zer? Edo neskekin larrua jotzea gustatzen bazait eta ez bikoteak eraikitzeke, zer? Edo alderantziz gertatzen bazait, zer? Nola izan behar du ondo egoteko? Erdi eta erdi?

Aztertu ditzagun galderak. Zenbat neskarekin eta zenbat mutilekin egon zara? Hasteko, gure topaketa erotikoek ez dute gure desiraren intentsitatea eta kuantitatiboa adierazten. Baina bitxia da desira konkretu honekin bi kontzeptuak

nahastea; zure desira sinistuko dut edo balio emango diot praktikak izan dituzula demostratzen badidazu, bestela agian iruzurtia zara eta alde batekoa zara benetan. Uau. Zeini okurritzen zaio heterosexual bati galdetzea ea zenbat jenderekin oheratu den benetan heterosexuala dela adierazteko? Inori. Zentzugabea da. Jarrai dezagun.

Bikote harremanak erreferentziatzat hartzeko tendentzia zure desira alde batera edo bestera doan ziurtatzeko. Hau da premisa: mutilekin bakarrik sortu baduzu bikote binkulua, horrek esan nahi du mutilak gehiago gustatzen zaizkizula. Oseaa bikoterik ez duten pertsonen desira gutxiago dute edo ahulagoa, agian ez dira benetan heteroak ezta? Bestela, bikotean egongo lirateke... Komentariok gabe. Bikoteak eraikitzea gauza bat da eta desirak izatea beste bat, batzuetan bi kontzeptuek topo egiten dute

baina ez beti, eta eskerrak horri.

Larrua jotzeko aukera gehiago ditugula ustea: je-je, nahi bai! Desira ez dago une oro piztuta, a tope! «Neskak, mutilak... Uauuu, zenbat estimulu!». Bisexual izateak ez gaitu *kaxondago* egotera eramaten. Bisexualtzat definitzeak desirak deskribatzen ditu; biografian zehar egon dira gustuko izan ditudan emakumeak eta gizonak (barkatu binarismo zurruna).

Alde batekoek uste dute hetero kurioso zarela eta bestekoek, benetan lesbiana zarela eta ez zarela auzartzen onartzera. A zer paradoxa. Ustezko erdibideek sortzen dituzten erreakzioak. Nahasmena sortzen du eta polarizazioa; "gurekin zaude edo ez zaude". Bada, ez gaude. Je-je! eta horrek deseroso sentiarazten bazaitu, begiratu zergatia. Agian zu zaude nahastuta, eta ez gu. •



Bisexualitateak deseroso sentiarazten bazaitu, aztertu zergatik. GAURB

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. CASTEJONGO KULTUR ETXEA

GAMAZOREN DEKRETUAREN AURKAKO BORROKA CASTEJONEN

1893ko maiatzetik 1894ko otsailera bitartean Gamazada gertatu zen. German Gamazo Espainiako Ogasun ministroak euskal foruen aurka emandako dekretuaren aurka Euskal Herriko hainbat tokitan izan ziren protestak, mobilizazioak eta altxamenduak. Iruñean eta Gasteizen Gamazoren dekretuaren aurkako lehen manifestazio jendetsuak egin ziren "Gernikako arbola"-ren doinuan; Bizkaian, berriz, Sanrokada izan zen, eta Gernikako jaiekin batera Espainiako banderak kendu eta erre ziren, «Viva Euskeria independentea» oihukatuz. 1893ko abuztuaren 27an, manifestazio bat joan zen "Gernikako arbola" abestuz Donostiako Londres hotelera, non Sagasta Gobernu espainiarreko presidentea afaltzen ari zen. «Foruak bizirik» eta «Sagasta behera» oihuak entzun ziren. Guardia Zibilak manifestazioa desegin eta hiru donostiar hil zituen, eta prentsak horrela jaso zuen: «...ezin dugu protesta besterik egin, benemeritak manifestari babesgabeegi egindako fusileria kargengatik...». 1894ko otsailaren 18an, Castejonen milaka pertsonak Madrildik negoziatzetik zetozen diputatu nafarrak babestu zituzten. Egun horretan, Arana anaiek lehen aldiz zabaldu zuten ikurrina Castejonen, Teodoro Galarzak Altaffaylla Kultur Taldeak argitaratutako memorieta deskribatzen duen bezala. Gamazoren dekretua kendu egin zuten. Iruñean, XX. mendearen hasieran, foruen monumentua eraiki zen. Artikuluaren irudia erremolatxaren kaian dago egina, Castejongo geltokian, 1894ko otsailaren 18an, diputatuei harrera egin zitzaizkien egunean. Aire zabaleko meza bat da, eta, hurrengo egunean "La Union Vascongada" egunkariak jaso zuenez, apaizak, zegokion abemaria errezatu beharrean, oihu egin zuen: «Gora Nafarroa», «Gora Diputazioa» eta «Gora Foruak».

bidaiari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

PERIGORD

LAU KOLOREKO
HERRIALDEA

FREUD PROMENADE

IBILTARIAK
NEOLITIKOTIK

WASHINGTON

UDAZKENEKO
IRUDIETATIK

SUITZAKO ALPEAK

NATURAREN
ARTELANIK GORENA

KOKS

BI IZARREKO JATETXEA
IZEBERG ARTEAN

Bertatik bertara Orbaibarreko erromaniko enigmatikoa **Egin planak** Izan Bidea jaialdia, Nafarroa Oinez, Black is Beltza, 72-22 Topaketak... **Munduan pasieran** Gabori eskutitzak, aldaketa klimatikoa, tornado baten barruan, akrobaziak Gizan... **Hiriak motzean** Qal'at Ja'bar, irla bihurtu zen zitadela

